

HABE

euskara ikasten ari garenon aldizkaria

253. Zenb.


1995.eko azaroa
335 pta./15 libera
(B.E.Z. barne)



JOSUNE ARIZTONDO:

**“Euskararen jabekuntza eta erabilera
bateratu beharrean gaude”**

XABIER ARREGI




ARGAZKIA: X. ELGEZABAL

2 X. Arregi informatika-irakaslea da EHUn. 31 urte ditu, eta doktoradutza-tesia egin du: *Anhitz: Itzulpenean laguntzeko hiztegi-sistema eleanitza*. Cum laude lortu du. Baina zer da hori?

Itzulpenak egiten dituenari laguntzeko sistema bat. Zertan? Hiztegiaren **erabilpenean**, herri-administrazioko hiztegien. Nola?: «Hiztegira egiten diren kontsultak zehaztu ditugu: batzuetan definizioa nahi dugu, beste batean hitzaren erabilerak, adibideak, **baliokide** egokiak... Zerrenda luzea da. Batzuetan hiztegiak **hankamotz** gelditzen dira. Adibidez, idatzi batean *bageneramatzan* baduzu, zuk hiztegiaren *eraman* begiratzan duzu. Hor hizkuntzaren ezagutza behar da *eraman* bilatzeko, hiztegiak ez du informazio hori ematen. Edo hitzen **kidetasunak** zehaztu ditugu. Adibidez, *hitz hau adjektibo honekin ondo doa, eta beste honekin ez, hori belarriak esaten dit* adierazten dugu. Kidetasun horiek ere jaso behar dira hiztegiaren. Edo batzuetan kontzeptua buruan dugu, baina hitza ez. Ideiatik hitzerako bidea ematen da horrelakoetan. Eta abar.

Beraz, itzultzaileak bi testu ditu. **Sorburu-hizkuntzan** eta **xede-hizkuntzan**. Hitz bat ezagutzen ez duenean, hitz hori aukeratu eta menu bat aterako da, hitz horri buruz zer nahi duen, definizioa, erabilerak... Bestalde, sistema deduktiboa da. Hau da, menuan segun zer aukeratzan duen, sistemak berak *antzemango* dio erabiltzaileari: «Hau informazio honen bila dabil». Eta sistemak informazio **gehigarria** eskainiko dio. Adibidez, «gurdibide» hitzaren definizioa eskatzen badu, sistemak sinonimoak ere emango dizkio.

Lau hiztegi erabili ditu: *Petit Larousse*, *Sarasolaren Hautalanerako Hiztegia*, eta *Euskararako hiztegia* Adorez-ek aterea, eta Pierre Lhanderena. Hurrengo pausua, sistema hori **hezur-haragizko** itzultzaileekin probatzea izango da.



ITZULPEN.- Traducción.
ELEANITZ.- Ele+anhitz. Plurilingüe.
ERABILPEN.- Erabil(i)+pen.
Erabilera. Utilización.
BALIOKIDE.- Ordaina. Equivalente.
HANKAMOTZ.- Herrena. Cojo.
KIDETASUN.- Lotura.

SORBURU-HIZKUNTZA.- Idioma original.
XEDE-HIZKUNTZA.- Itzultitako testua.
GEHIGARRI.- Suplementario/a.
HEZUR-HARAGIZKO.- De carne y hueso.

IKUSMIRAN ERREPORTAIA ELKARRIZKETA

ERREPORTAIA LABURRAK 2 ERREPORTAIA BAI, ESAN 2 ELKARRIZKETA

PORRUSALDA DURANGOKO AZOKA DISKOAK 2 3 LIBURUAK 3 ZOKOMIRAN IDAZLAN-LEHIAKETA

HAU MUNDUA 2 EZETZ ASMATU 3 TESTA ERREPORTAIA IPUINA JOLASEAN ZINEA

KOMIKIA SOLUZIOAK HOROSKOPOA 3

Xabier Arregi 2	2
Informatikaren alde ilunak 3	4,5
Josune Ariztondo: Euskararen jabekuntza eta erabilera bateratu beharrean gaude» 3	6,7,8,9
Bilboko Ledesman artea modu onean 3	10,11
.....	12
Musika, ia musutruk 2	13
.....	14,15
Nekane San Migel: «Epaimahai herritarrean abstentziorik ez dago» 2	16,17
.....	18
Sorgina eta emakume eder bat (Joxe Arratibel) 3	19,20,21,22
.....	23
.....	24
Gorka Salmeron Ruandan 3	25,26,27
Behar zaitut (A.Castillo) 2	28
Aupa, lagun (Alberto Delgado) 1	29
.....	30,31
Loditzeko beldurrez bizi al zara? 2	32
Zerua beti oskarbi Iruñeko Planetariumean 3	33,34,35
Silvia eta aitona (Rufino Iraola) 3	36,37
.....	38,39
Alex de la Iglesia: «Zinemaren mundua krudela da oso» 3	40,41
Izarrak bilatzeko makina (Mikel Valverde) 3	42,43,44,45
.....	46
.....	47

HABE MAILAKA IRAKURRI

Irakurle hori:

Dagoeneko badakizu aldizkari honetako erreportaiek eta zenbaki bat dutela artikuluen zailtasuna adierazteko. Beraz, eta HABEren programazioa oinarri, zailtasun-mailak 1 2 3 4 zenbakiak ipiniz adierazten jarraituko dugu. Dena den, ez nahastu programazioaren urratsekin.

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berriuskalduntzerako Erakundea

Erakunde Autonomiaduna



© Autonomi Elkarteko Administrazio Orokorra: HABE.
Tel. (943) 41 26 00
Faxa: (943) 41 26 01
ERREDAKZIOA:

Iñaki Ugalde
F.A.E.

Ion Imanol Iturrioz

MARRAZKIGILEA:

Enrike Larrarte

AZALEKO ARGAZKIA:

HABE

IRARKOLA:

Artes Gráficas

Rontegui S.A.L.

LEGEZKO GORDAILUA:

BI-2251/81

ISSN: 0212-6788

INFORMATIKAREN ALDE ILUNAK

3 Gaur egun indar handia du informatikak, ezin da bizitza ulertu ere informatikarik gabe. Alde onak asko ditu, asko erraztu du jendearen lana, **aisialdian** ere erabat sartuta dago, CD Romaren eta Internet **sarearen** bidez informazio asko jasotzen du erabiltzaileak. Baina informatikak ere baditu bere arriskuak, eta badaude legeak arrisku horiek **saihesteko**, edo legea **bete ezean**, zigorrak jartzeko. Baina teoria **bat al dator** praktikarekin?

Nori ez zaio iritsi, Bartzelonatik, edo berdin dio nondik, halako ikastaroren bat egiteko proposamena. Eta galdera betikoa da: «nola dakite nire helbidea, nola nire izen-abizenak, nola existitzen naizela ere...?». Horrelakoetan haxe pentsatzen da: norbait gure datu informatikoak erabiltzen ari dela, gure baimenik gabe erabiltzen. Baina zer dio legeak? Norberaren datuen tratamendu automatizatua **arautzen** duen 5/92 Lege Organikoak?

Zure baimena behar dute

Zure baimenik gabe ezin ditu inork zure datuak informatizatu, ezta beste inoren esku jarri ere. Eta ez da zilegi egia ez diren datuak gordetzea. Datuak **eginbehar** jakin batetarako erabiltzen dira. Ezingo dira, zure baimenik gabe, beste ezetarako erabili. Eginbehar hori bukatzen denean, ez da zilegi datuak gordetzea. Zure datuen tratamendu informatikoaren berri izateko eskubidea duzu. Datu horiek noren esku jarriko dituzten jakitekoa. Zure erlijioa, pentsakera, sinesmenak, arraza, osasuna, sexu-bizitza ezingo dira informatizatu zure baimenik gabe. Baimen hori idatziz eman behar duzu. Hala esan digu Donostiako abokatu batek: «Zuk zenbat irabazten duzun, zenbat diru gastatzen duzun, nola... Horiek oso datu pribatuak dira. Zuk supermerkatu batean txartelarekin ordaintzen baduzu,



ARGAZKIAK: X. ELGEZABAL

hori bankuak daki, sindikatu baten kuota banketxean domiziliatuta badaukazu, hori datu pribatua da, edo betaurrekoak taloi batekin ordaintzen badituzu, bankuak zure osasunari buruzko datu bat du, eta hori oso pribatua da... Eta ez gara horretaz **konturatzen**. Ez gara konturatzen banketxetan, adibidez, langileen ordenadoreak elkarren artean konektatuta daudela. Eta neurriak hartzen ez badira, edozein langile sar litekeela sistemaren **arduradunaren** fitxeroan».

Datuen Babeserako Agentzia

Fitxeroaren arduraduna nor den jakiteko eskubidea duzu, baita

haren helbidea jakitekoa ere. Arduradun horrek ezin ditu zure datuak **zabald**u. Arduradun horri idatzi, eta fitxeretik zure datuak aldatzeko edo **ezabat**zeko eskatzen badiozu, bost eguneko epea du idatzia jasotzen duen egunetik hasita, zuk esandakoa egiteko. Egin ezean, edo erantzunik jaso ezean, Datuen Babeserako Agentziara jo dezakezu.

Baina jakina, datu batzuk ezin dira zuk nahi duzunean ezabatu. Adibide batekin errazago ulertuko dugu denok. Kotxe-istripua izan duzu, eta hilabete baterako karnetik gabe utzi zaituzte. Zigor hori **aurrekari** penaltzat hartzen da hurrengo bi urtetan zehar. Epe hori pasatakoan, eskubidea duzu datu hori artxiboetatik ezabazteko. Lehenago ez.

AIISIALDI.- Tiempo de ocio, tiempo libre.

SARE.- Red.

SAIHESTU.- Itzuri. Evitar.

BETE EZEAN.- Betetzen ez bada. Si no se cumple.

BAT ETORRI.- Ados egon. Estar de acuerdo.

ARAUTU.- Reglamentar.

EGINBEHAR.- Egitekoa. Quehacer.

KONTURATU.- Jabetu, ohartu, akordatu. Darse cuenta.

ARDURADUN.- Ardura+dun.

Responsable. Era berean: dirudun, txapeldun, bizardun...

BABES.- Protección.

ZABALDU.- Hedatu, barreiatu.

Difundir.

EZABATU.- Anular.

AURREKARI.- Antecedente.

Informatikaren aldetik **gehiegikeriak** balego, agentzia horrek ikertzeko ahalmena du, eta baita fitxeroaren arduraduna zigortzeko ere. Edozeinek galde dezake agentzia horretan nor den fitxero baten arduraduna, eta helbidea. Informazio hori **doanekoa** da.

Agentzia hau Justizia Ministeritzari **atxikia** dagoen Erakunde Autonomoa da. Horko burua Justizia Ministroak izendatzen du.

Adibide bat

Orain arte legea aitatu dugu. Orain praktikara joko dugu. Donostiako legegizon baten iritzia eskatu dugu. Legegizon hau bere Auzo Elkarte buru zen eta bi kontu korronte zituen bere izenean aurrezki-kutxa batean, 1988an irekiak, bat berea, eta bestea Auzo Elkarte buru bezala. Bi kontu korronteen zenbakiak oso antzekoak ziren, bata bestearen segidakoak. **Eman dezagun**, legegizonarena 01.445 zela eta Elkartearena 01.446. Urtero kuota bat ordaintzen zuten **bizilagunek**. Behin edo bitan kutxako langilea nahastu, eta kuotaren dirua 01.445ean sartu zuten. Legegizona konturatu, eta dirua 01.446ra itzuli zuten. Hori 1989an gertatu zen:

Zure datuak informatizatu nahi dituenak baimena eskatu behar dizu

Legegizonak kontra zituen bi auzokide. 1993an aurrezki-kutxara joan ziren eta komunitateko kontuak eskatu zituzten, azken bost urtetako kontuak. Banketxeak eman egin zizkien, eta esan bitan nahastu egin zirela, eta komunitateko dirua legegizonaren kontu korrontean sartu zutela: «Orduan legegizonaren kontuak ere ikusi nahi ditugu, azken bost urteotakoak» esan zuten kutxan. Eta kutxak eman informazioa. Ez zen **istilurik** sortu legegizonaren eta bizilagunen artean. Baina legegizonak erreklamazio bat


egin zuen aurrezki-kutxaren eta Banco de Españaen aurrean. 1. Elkarteko kontu korronteko datuak zergatik eman zizkien kopropietario zirela **ziurtatu** ez zuten bi laguni, eta kontu korronteko jabeak ezer esan gabe? 2. Zergatik eman zieten legegizonaren beraren kontuaren berri? Horiek ziren bi salaketak. Aurrezki-kutxak ez zuen erantzun. Orduan Banco de España jo zuen legegizonak. Aurrezki-kutxak ukatu egin zuen bigarren salaketa: «Baina nik badakit eman zutela. Bilerak bat egin genuen bizilagunok eta han esan zuten bi bizilagun horiek: Begira komunitateko dirua zure kontu korrontean sartu duzu, hona hemen agiriak». Orduan Datu Babeserako Agentziara jo zuen. Laz jaso zuen erantzuna gure gizonak. Baietz. 5/92 Lege Organikoaren arabera, **ustezko** arau-hausteak egin zituela aurrezki-kutxak, eta zigorrerako bidea martxan zegoela: «Eta gaur arte. Zer gertatzen da? Ba, nik arrazoi badut, bigarren salaketarengatik gutxieneko **isuna** 10 milioi pezetakoa dela, eta gehienez, 100 milioi edo gehiagokoa. Eta ez dira ausartzen horrelako isunak jartzen» esan digu legegizon honek. Eta jarraitzen du: «Garai batean, adibidez, delitu ekologikoen isunak oso txikiak ziren, eta lantegiek nahiago zuten kaltea egin eta isun txikia ordaindu. Orain, berriz, isunak izugarriak dira, eta ez dira ausartzen isun hori jartzen».

Publizitate-etxeak

Nondik lortzen dituzte publizitate-etxeek jendearen helbideak eta. Hori galdetu diogu legegizonari: «Udaletxeetako erregistroetara edo banketxe edo aurrezki-kutxetara joz. Toki bateko jendearen zerrenda ateratzen dute. Hortik ateratzen dute **lanbidea** eta helbidea. Eta lanbidea datu pribatua da. Edo Lanbide-Kolegioetara joz, abokatuena, sendagileena... Horrelako kolegiotan langileen zerrendak daude. Eta batzuetan erdi-publikoak dira. Hau barruko langileak erabiltzeko da, ez beste inork. Eta badira taldeak horra joz jendearen informazioa lortzen dutenak, edo, probintzia bateko zentsora joz, eta gero informazio

hori publizitate-etxeei saltzen diete. Eta zer gertatzen da bankuekin? Ez dute hori egiten dutenik aitortzen baina. **Bezero** on batek, A deituko diogu, informazio bat jakin nahi du B deituko diogun beste norbaiti buruz. Eta Ak bere banketxeari eskatzen dio informazioa: nolakoa da B, ordainduko dit **lur-saila**, ez; zorrik ba al du? B ez da banketxe horretako bezeroa. **Berdin dio**. Banketxeen artean harremanak dituzte, eta elkarri mesedeak egiten dizkiote. Azkenean Ak lortu egingo du eskatu duen informazioa. Dena den, nire ustez, denek ez dute berdin jokatzeko» esan digu legegizon honek.

Abokatua ez dute oso aintzat hartu. Zorionez, beti ez da hori gertatzen. Izan ere, Datuen Babeserako Agentziak 50 milioi pezetako isuna jarri dio *Publivenio S.A.* elkarteari. Zergatik? Errola erabili duelako iragarkiak jendearen etxeetara bidaltzeko. Eta datu horiek beste iragarki-enpresa batzuen esku utzi dituelako. *PDM Marketing y Publicidad* enpresari ere 10 milioi pezetako isuna ezarri diote errola erabiltzeagatik iragarkiak etxera igortzeko.



Oso erosoa da txartelarekin ordaintzea, baina bankuari informazio pribatua ematen diogu horrela.

GEHIEGIKERIA.- Abuso.
DOAN.- Dohainik, debalde.
Gratuito.
ATXIKI.- Lotu, uztartu.
EMAN DEZAGUN.- Demagun, egin dezagun. Supongamos que.
BIZILAGUN.- Auzokidea. Vecino/a.
ISTILU.- Iskanbila, sesioa, tirabira.

ZIURTATU.- Frogatu. Certificar.
USTEZKO.- Presunto.
ISUN.- Multa.
LANBIDE.- Ogibidea, ofizioa.

BEZERO.- Cliente.
LUR-SAIL.- Lur-puska. Terreno.
BERDIN DIO.- Da lo mismo, es igual.

JOSUNE ARIZTONDO: «Euskararen jabekuntza eta erabilera bateratu beharrean gaude»

3 Joan den urriaz geroztik, HABE erakundearen zuzendaria da Josune Ariztondo. Ondarrutarra jatorriz, Sopelan —eta Donostian— bizi da gaur egunean. Kimika-ikasketak amaitu, eta irakaskuntzara emana bizi izan da urtetan eta urtetan: Lauro ikastolan zuzendari pedagogiko eta Derioko Irakasle Eskolan irakasle eta ikasketa-burua. Labayru Ikastegian eta UZEIn alfabetatua, UEUko saioetan ere lanik argitaratu du. Azken zazpi hilabeteak Hizkuntza Politikarako Sailordetzan egin ditu Euskara Sustatzeko zuzendari. Giza Baliabideen Kudeaketan masterra egin izanak **lagunduko ahal dio** lan berri honetan!

HABE.- Josune Ariztondo edo Josune Ariztondo? Izan ere, bietara ikusten da komunikabideetan.

JOSUNE ARIZTONDO.- Egia esan, Ariztondo idatzi izan dut. Baina, honez gero hamar bat urte izango da jakin izan nuela abizen hori Gipuzkoatik etortzekotan, z-rekin zela, *Haritza* esaten delako gipuzkeraz. Eta, ostera, Bizkaitik datorrean, *Arestondo*, *Aretxaga*, *Aresti* eta horiek s-rekin direla. Eta nola gu **endaz**, edo jatorriz, Itziar ingurutik gatozen, uste dut z-rekin dela, eta halaxe idazten dut.

H.- Jendaurrean bizkaieraz hitz egiten duzu. Euskararen normalizazioan **euskalkiei** ere eutsi behar zaiela uste duzu, beraz?

J.A.- Bai. Noski! Hor eta hemen mundu jantziago batean bizi diren edo garen bizkaitarrok



LAGUNDUKO AHAL DIO!- ¡Ojalá le ayude!

ENDA.- Askazia. Casta, linaje.


EUSKALKI.- Euskararen dialektoa.

bizkaieraz egiteak, nik uste dut, prestijio aldetik eta eredu izan daitekeen aldetik, garrantzi handia daukala. Bizkaitar askok pentsatzen dute eskolatua den batek batura pasatu behar duela, eta horrek bizkaierari kalte egiten dio. Eta, ondorioz, batuari eta euskarari. Horretxegatik nik uste zenbait politikarik eta intelektualek bizkaieraz egiteak **onura** baino ez dakarrela bizkaierarentzako eta, beraz, euskararentzako. Gainera, niretzako etxekoa eta biziagoa delako egiten dut bizkaieraz, ahoz egiten dudanean.

HABE hizkuntz politikaren ardatz nagusietakoa dugu»

H.- Hizkuntza Politikarako Sailordetzatik etorri zara. HABE hizkuntz politikaren **habe** edo euskarri bihurtu nahi duzu?

J.A.- Berez, HABE euskararen eta gizartearen normalizazioari begira sortutako erakunde bat da. Eta halaxe jardun du urte hauetan. Hala ere, urteak ez dira alferrik joaten eta gaur, HABE sortu eta 12-14 urte igaro ondoren, beste ezaugarri batzuk ere baditugu: adibidez, hezkuntza-sistemaren bidez lortzen ari garen euskaldun berriek, helduen euskalduntze-alfabetatzean **metatu** dugun esperientziak... beste **beharrizan** batzuk ere ekarri dizkigute. Eta hor ditugu, besteak beste, hizkuntzaren kalitatea, euskalduntze-prozesuaren ebaluazioa, alfabetatze-egitasmoen azterketa,... **esku bete lan** dugula esan genezake. Eta aipatu ditudan arloetako gehientsuenetan, HABEren lana habeetako bat da, edo **ardatz**



«Esan daiteke jakiteak, edo maila bateraino jakiteak, ez dakarrela berez erabiltzea».

nagusietako bat, ardatz nagusia esango nuke nik ia-ia. Hori aitortuta ere, nagusia izan arren eta ardatza izan arren, tresna bat da hizkuntzaren normalizazioko bidean.

H.- Eta hemendik aurrera zein izango dira HABEren **lehentasunak**?

J.A.- Esan bezala, hizkuntzaren kalitatearena ikaragarritzko **erronka** da gaur egun, euskararen jabeakuntzak badielako beste helburu zehatz bat ere, erabiltzearena. Eta, erabiltzeko, ikasi beharra dago, kasu askotan behintzat. Beste batzuetan, neurri batean jakin arren, ez da erabiltzen. Beraz, esan daiteke jakiteak, edo maila bateraino jakiteak, ez dakarrela berez erabiltzea. **Jardunean ari** garenean, denok jotzen dugu errazen dakigunera, eta, komunikazio-egoera desberdinetan **erabilerarekin**

lotutako irakaskuntza praktikatzen ez badugu, azkenean erabileraren erronkari ez diogu aurre egingo. Beraz, euskararen jarraipena **bermatu** nahi badugu, erabilera eta jarduna sendotzeko **urratsak** eman beharrean gaude. Eta hori guztia euskararekiko **jarrerak** ahaztu gabe

H.- Arabaz ari zara jarrerak aipatzerakoan?

J.A.- Ez Arabaz bakarrik. Batzuetan, nahiz eta oso inguru euskaldunetan gertatu, pertsona batzuk ez dira izaten gauza euskaraz ikasteko, daukaten adinagatik edo horretarako premiarik ez dutelako izan. Baina hizkuntzarekiko duten jarreraren arabera, euren seme-alabei euskara ikasten laguntzeko prest ager daitezke.

H.- Zer egin lezakete bai HABEk eta bai euskaltegiek langintza horretan?

ONURA.- Etekin. Provecho.
HABE.- Haga. Viga.
METATU.- Pilatu. Amontonar.
BEHARRIZAN.- Premia, beharra. Necesidad.
ESKU BETE LAN IZAN.- Lana erruz izan, lan asko izan.
ARDATZ.- Eje.

LEHENTASUN.- Aitzintasuna. Preferencia, primacía.
ERRONKA.- Reto, desafío.
JARDUNEAN ARI.- Hizketan ari, berriketan ari. Hablar.
ERABILERA.- Utilización.

BERMATU.- Garantizar.
URRATS.- Pausua. Paso.
JARRERA.- Portaera. Actitud.

J.A.- HABEren sorrera-legean aipatzen diren helburuetan, helduen euskalduntze eta alfabetatzeaz gainera, horretarako behar diren baliabide eguneratuak ere badaude. Beraz, helduen **eremuan** euskararen jarraipena bermatzeko behar diren lan-egitasmoak martxan jartzea dela esan daiteke, HABEren **erantzukizun** nagusia.

Eta zertan gauzatu hori? Adibidez, **eman dezagun** garrantziko jotzen dugula, gure hizkuntzaren kalitatea bermatzeko eta gure kulturaren transmisioa bermatzeko, hainbat adineko pertsonak, ikasleetan edo beste leku batzuetan hurrei ipuinak kontatzeko prestakizuna lortu behar duela. Ipuinak esateko edo kontatzeko, gure euskaldun heldu askok irakurtzen ikasi beharko dute beharbada. Helduen alfabetatzeaz ari gara, helduen alfabetatze bereziez ari gara. **Era** askotara egin daiteke alfabetatzea: Zer-Nori-Nork

berrikasiz, deklinabidea landuz, edo testuak irakurtaraziz... Baina beste era batetara ere egin daiteke agian, zerbait komunikatzeko beharizan hurbila sentiarazi ondoren irakurtzen duen hori «esaten» irakatsiz.

Esfortzu bat egin da 1995eko aurrekontuari ia-ia eusteko»

H.- Horrek esan nahi du talde berezituak **sustatu** nahi direla?

J.A.- Bai. Nik uste dut badela garaia ohizko bihurtu zaigun euskalduntze eta alfabetatzeaz gain, euskalduntze eta alfabetatze-ikastaro bereziak bultzatzeko. Eta bereziak zertan? Helburuei begira **etekinak** eperik laburrenean emango dizkiguten taldeak aukeratzean dago berezitasun

bat. Eta beste bat, adibidez, lehengo batean irratian aipatu nuena: herri euskaldunetan ia bizitza osoa euskaraz egiten da, baina hala ere sarri egoten dira arlo edo eremu batzuk erdaraz **garatzen** direnak eta euskaldunduz gero ondorio ugariak emango lituzketenak; adibidez, **iragarkiak**, komertzio eta bestelako giza zerbitzuetan ari diren atal edota pertsona berezi batzuk euskalduntzeak ondorio biderkatuak ekartzen ditu hainbat herritarrentzat. HABEri ere badagokio horretarako ikastaroak **eratzea**, helduen euskalduntze eta alfabetatzearen barruan egongo liratekeelako.

H.- **Giza ekimenarekin**, udaletxeetako zerbitzuekin eta elkarlanean aritu behar, beraz?

J.A.- Bai, dudarik ez. Oso zaila litzateke egitea gizakideekin batera ez bada. Eta horrek denon arteko lana eta erantzukizuna esan nahi du: gauza ez da egun batetik bestera daukaguna **azpikoz gora jartzea**. Pausuak **patxadaz** eman behar dira. Baina eman behar direna zalantzarik ez dugu, eskuan ditugun **baliabideak** ondo erabiliz. Eta aurrekontuetan justu samarrago gabiltzan garai honetan bereziki egokia delakoan nago. Daukagun baliabideak beste era batera erabiltzeko, beharbada danori dagokigu, gugandik hasita, betiko inertiak **astintzea**. Eta gure irizpideak argi adieraztea: euskaltegien mapa finkatzera jo nahi dugu sektore publiko eta pribatuari eutsiz, homologazioaren eta normalizazioaren aldekoak gara, eta euskalduntze-alfabetatzean diharduten erakundeekin hitzarmenen kultura sakontzen joan nahi dugu. Eta hau guztia euskararen



«Euskaltegien mapa finkatzera jo nahi dugu sektore publiko eta pribatuari eutsiz».

EREMU.- Esparrua, saila.
ERANTZUKIZUN.- Ardura. Responsabilidad.

EMAN DEZAGUN.- Demagun, egin dezagun. Supongamos que.

ERA.- Moidea, modua.

SUSTATU.- Akiilatatu, bultzatu. Impulsar.

ETEKIN.- Mozkina, probetxua.

GARATU.- Desarrollar.

IRAGARKI.- Anuncio publicitario.

ERATU.- Antolatatu, tajutu.

Organizar.

GIZA EKIMEN.- Iniciativa humana.

AZPIKOZ GORA JARRI.- Poner patas arriba.

PATXADA.- Lasaitasuna, baretasuna. Tranquilidad.

BALIABIDEAK.- Eskuartekoak. Recursos.

ASTINDU.- Harrotu. Sacudir.

normalizaziorako **emankorrek** izango diren ekintza-eremuak sustatuz.

Lehentasunen arabera, sektore bakoitzean dauden ikasle-orduei eusten saiatuko gara»

H.- Esan duzunarekin badirudi hurrengo urteko aurrekontuak **urrixeagoak** direla. Euskaltegietan jendea kezkatuta egongo da seguru asko. Zer gertatuko da aurretik izenpetuta dauden hitzarmenekin eta hemendik gutxira izenpetuko direnekin?

J.A.- Guk, HABEn, 1996 urteko aurrekontuetan 95 urtearekiko %1,18ko **jaitsiera** daukagu. Badakigu datozen urteetan ere ez dugula **hazkunderik** izango Eusko Jaurlaritzako aurrekontuetan. Hala ere, zifra guztiak ikusita, gure sailean ahalegin berezia egin dugu HABeko zifrari jaitsiera horretan eusteko. Arrazoi berezi bat gehiago, beraz, daukagun hori ondo erabiltzeko.

Eta, esan bezala, gu saiatuko gara **osagarritasunaren** printzipioan oinarrituta eta gure lehentasunetan oinarrituta, neurriraketari eusten.

H.- Zer da neurriraketa?

J.A.- Neurriraketa esaten denean, dimentsioa adierazi nahi izaten da. Ikastaro-mota bakoitzari modu zehatz batez neurtzen zaio bere dimentsio hori: ikasle-orduak, eskola-egunak, ikasle-taldeak... erabiltzen dira, ikastaro

bakoitzari aitortzen zaion neurria, diru-laguntza zehazteko.

Oraingoz, datuak aztertzen gabiltza, erakundeekin adostasunera iristeko asmotan. Baina helburuekiko lehentasunak ahaztu gabe. Gogoan hartu behar dugu **hezkuntza arautuan**, unibertsitatean, adibidez, *numerus clausus*ak daudela. Eta hori ez da beharbada egoerarik onena. Baina gizarteak onartzen du ezin zaiela eskabide guztiei erantzun eta hazten eta hazten jarraitu. Euskaltegietan ditugun ikasleen datuetatik jakin daitekeenez, urteetan gertatzen ari zaigu hamabi urratsetatik lehenengo hiru urratsetan daukagula ikasleen %50a baino gehiago. Hor dugu gogoetarako puntu bat. Eta ondorio praktikoren batzuk atera beharko ditugula uste dut.

H.- Aipatu duzu ikasleen erdia baino gehiago lehen hiru urratsetan dagoela. Eta alfabetatzeak nolako pisua dauka HABEn? Izan ere, horiek dira fruitua errazen ematen dutenak.

J.A.- Egia da, gure esfortzu ekonomikorik handiena euskalduntzean egiten da, eta euskalduntzeko lehen hiru urratsetan batez ere. Ez da ahaztu behar, zuk esan bezalaxe, alfabetatzea dela epe laburrean etekinik hoberenak ematen dituen eta, osterat, ez gara nahikoa egiten ari alor horretan. Nire lagun batek beste gai baten gainean esaten duen bezalaxe, arlo honetan ere eskaintza honen eskaera sustatu beharrean gaudela uste dut. Eta alfabetatzeko orduan baditugu pertsona-perfil desberdinak. Batetik,

euskaldun zahar alfabetatu gabeak. Eta nahiz eta orain urte batzuk kanpainak egin izan ziren, oraindik geratzen da jendea alfabetatze-programetan ibili gabea.

Badakugu beste euskaldun-perfil bat ere: guraso gazteak, lehen ikastoletan euskaldundutako ikasleak eta, orain, 25-35 urteko euskaldun berri zaharrak direnak. Eta beharbada horientzako euskara komunikatzeko orduan mugaz betetako hizkuntza da. Eta hor, euskara errazagoa izan dadin eta komunikazio-bide errazagoa izan dadin pausu bat ematen ez badugu, famili bidezko transmisioa ez dugu bermatuko.

Denoi dagokigu betiko inertziak astintzea»

Dena den, euskalduntzeko programazioaz ere badugu zer azterturik: zeintzuk izan behar dute horrelako egitasmoen helburuak? zergatik ez dute izan lekurik horrelako programazioetan Euskal Herriko historiak edo Geografiak edo Antropologiak?

Gai honen inguruko gogoeta sakona egin beharra daukagulakoan nago eta inon egon daitezkeen esperientziak jaso beharrean, euskararen jarraipenarekin batera gure kulturak, gure **senak**, irautea **lor dezagun**.

EMANKOR.- Joria, oparoa. Fructífero.

URRIXE.- Urri+xe. Apur bat murriztagoa.

JAITSIERA.- Descenso. Aurkakoa: igoera.

HAZKUNDE.- Crecimiento.

OSAGARRITASUN.- Complementariedad.

HEZKUNTZA ARAUTU.- Educación reglada..

SEN.- Zentzua. Instinto, sentido.
LORTU.- Erdietsi. Lograr.

Hirurogei artistaren koadroak daude salgai Bilboko Ledesman artea modu onean

3 Bilbon, Ledesma kalean, hiriaren erdi-erdian beraz, enpresa berri bat sortu da. Euskal Herritik kanpora badira horrelako beste enpresa batzuk, baina Bilbokoa lehendabizikoa da gurean. Koadroak, margoak, baldatan daude **pilatuta**, liburuen antzera. Eta saldu egiten dituzte. Artista nahikoa **ezezagunen** koadroak dira. Dendaren izena: Artebi.

Eta bi dira dendako langileak, jabeak: Edurne Gorrotxategi eta Lurdes Aretxaga. Edurne Gorrotxategik egun osoz egiten du **behar**, eta Lurdes Aretxagak, **ostera**, egun erdiz. Lurdesek esan digunez, beste langile bat, hirugarrena, hartu gura dute, hau ere egun-erdiz aritzeko.

Edurnek Arte Ederrak ikasi ditu, eta hauxe du bere lehendabizikoa lana. Lurdesek, berriz, badu beharra, eta dirua jarri du: «Ni lankide kapitalista naiz» esan digu **irribarre** batekin.

Telebista entzunda

Edurnek eta Lurdesek erreportaia bat ikusi zuten telebistan. Madrilan eta Bartzelonan, Gabonetan, koadroak saltzen dituztela antzeko dendetan. Baina Bilbon ez dute Gabonetan soilik saldu nahi. Dena den, **irrikitan daude** urteko sasoi hori noiz ailegatzen den. Izan ere, opariak eta...

Eusko Jaurlaritzak diru-laguntzak ematen ditu enpresa **berritzaileak** sortzeko. Horri esker, ikerketa bat egin zuten enpresa hau tajuzkoa zen jakiteko: zenbat diru jarri behar zuten, gutxi-asko zenbat salduko zuten, **bezeriarik** nahikoa badagoen eta abar. Beraz, lan handia egin dute

denda ireki aurretik. Horregatik esango du Edurnek «ez dugu beldurrik». Urte bete pasa zuten ikerketa hori egiten, arte-azoketara joaten, antzeko dendak ikusten, marko-saltzaileekin ere egin zuten berba. Lokaiaren bila bi hilabete eman zituzten, eta artelanak aukeratzen beste bi: «Lasai, honek **porrot egiten** badu, ez gara espetxera joango» esan zigun konbentzitutako Edurne Gorrotxategik.

Lokala Ledesma kalearen 24. zenbakian dago. **Txikia da aukeran**, baina leku onean dago. Bazuten beste toki bat begiz jota, handiagoa, baina urrutisko zegoen hiriaren erdigunetik.

Hirurogei artista

Artebi hirurogei artistaren lanak daude, guztira 1.200 koadro, 60 artista bakoitzeko. Baina hiru ehun artistaren lanak

ARGAZKIAK: X. ELGEZABAL



MODU ONEAN.- Merke samar. A precio asequible.

PILATU.- Metatu. Amontonar.

EZEZAGUN.- Arrotza.

Desconocido/a.

BEHAR.- Lana.

OSTERA.- Aldiz, berriz. En cambio.

IRRIBARRE.- Barremurria. Sonrisa.

IRRIKITAN EGON.- Biziki desiratzten egon. Esperar con ansia.

BERRITZAILE.- Berri(tu)+tzaile.

Renovador/a. Era berean: okertzaile, saltzaile, asmatzaile...

BEZERIA.- Clientela.

PORROT EGIN.- Huts egin.

Fracasar.

TXIKIA DA AUKERAN.- (Modurik banu, handiagoa aukeratuko nuke). Comparativamente es un tanto pequeña.



Edurne...

ikusi zituen Edurnek urtarrila-otsaila bitartean. Denda **zabald**u, eta bostgarren egunean azaldu ginen gu: «Hain denbora gutxian konturatu gara arte figuratibotik koadro gehiago behar ditugula. Dena dela, orain arte **bederen** arte abstraktoa gehiago ari da saltzen. Begira, neska honek saldu du orain arte gehien, Ana Marinek. Ez da figuratiboa» azaldu digu Edurne Gorrotxategi enpresari gazteak.

Artista bat edo beste kenduta, beste guztiak Euskal Herrikoak dira. Enpresariak komisia jasotzen dute. Zenbat? Ez digute esan nahi izan. Artista ondo zaindu nahi omen dute. Artisten eta enpresarien artean erabaki omen dute, komisia zenbatekoa den ez esatea. Hori bai, artistarentzat merkeagoa omen da Artebin saltzea. Horretan ere **alde**a omen dago beste galeriekin konparatuta: «Galeria batean lokala **alokatu** behar du artistak, enpresariak dirua gastatu publizitatean, galeri-jabeek apenas arriskatzen duten jende

berriarekin...» adierazi digu Edurne Gorrotxategik. Eta **eransten** du Lurdes lankideak: «Galeriek badute Artebik ez duen elite-ikutu hori. Koadro bat edo beste bada mila pezetakoa, baina, merkeenak 3.000 pezeta **egiten** du normalean, eta garestienak, oster, 23.000 pezeta». E. Gorrotxategik berak erabaki du koadrorik garestienak 23.000 balioko duela.

Bulego asko inguruan

Era askotako jendea sartzen da dendan. Inguruan bulego asko dago, baina etxeoandreak ere etortzen dira, batez ere azken orduan. Hala esan digu Ledesmatik hurren bizi den emakume gazte batek: «Oso ideia ona izan dute. Aukera bat eskaintzen ari zarete artista ezezagunei, eta jende **xeheari** artea ezagutarazten ari zarete» esan zien jabeei gure grabagailuaren aurrean. Grabagailua ez zuen oso atsegin emakume horrek eta itzali genuenean, hitz gogorxeagoak **jaurti** zituen: «Asper-asper eginda nago Van Gogh-en «kromoekin». Hemen originalak erosteko aukera dago, eta modu onean. Galerietako lanak ere garestixeak dira. Oso koadro politak dituzue. Animo!»

Mila koadro inguru daude Artebin

Lucia Jauregi ere koadroak ikustera etorri da amarekin. Luziaren izebak, Maria Somek, koadroak ditu Artebin, eta horregatik etorri dira. Ordu-erdi egin dute gutxienez dendan ama-alabak.

Pintatzeko zaletasuna

Pintatzeko zaletasun handia dago, eta zaletu asko etorri da Artebira koadroak lagatzera, baita Arte Ederrak bukatutako asko ere, bukatu ez dutenak ez horrenbeste. Gu han ginen bitartean, bezero batek koadro bat erosi zuen, figuratiboa; txori batzuk ziren, 6.700 pezeta balio zuen: Nere **logelan** jartzeko da. Ez dut inbertsio bezala erosi. Hemen

badaude onak datozen artistak, hau esaterako, baina neri ez zait gustatzen, beste hau bai».Eta koadroaren atzeko partean irakurri du. 1972an Etxebarrin jaiotako neska bat da artista, ia ez du kurrikulum-ik: «1995. Urria. Erakusketa kolektiboa Artebin». Hori da egin duen guztia. Baina behintzat ezezagun batek koadro bat erosi dio, eta izugarriko ilusioa egingo dio neskari. Van Gogh-ek koadro bakarra saldu zuen, eta hura anaiak erosita. Orain milioika pezeta edo libera balio dute haren koadroek. **Baina hilda gero, salda bero**. Artebin ere badira 13 urtetan lanean aritu, eta erakusketarik egin ez duten artistak. Eta Edurne Gorrotxategik, Arte Ederrak ikasitako batek, eta zerbait jakingo du horretaz, aukera bat eskaini die. **Apika**, ez dira Guggenheim-eko aretoetara iritsiko, baina **batek daki!** Urtebeteko epea dute zerbait saltzeko. Epe hori eman diote Edurnek eta Lurdesek Artebiri. Orain hitza bezeroek dute. Ia denentzat dago aukera.



eta Lurdes

ZABALDU.- Ireki. Abrir.
BEDEREN.- Behintzat. Al menos.
ALDE.- Diferentzia.
ALOKATU.- Akuratu, errentan hartu. Alquilar.
ERANTSI.- Gehitu. Añadir.
EGIN.- Balio izan. Valer, costar.

ERA.- Mota. Clase, tipo.
XEHE.- Arrunta. Normal, sencillo.
JAURTI.- Bota.
ZALETASUN.- Afizioa.
LOGELA.- Lo+gela. Dormitorio. Era berean: jangela, egongela, irakurgela...

HILDA GERO, SALDA BERO.- (Esaera zaharra) Muerto el burro, cebada al rabo.
APIKA.- Agian, beharbada.
BATEK DAKI!- Auskalo! ¡Véte a saber!

LABURRAK

BEGILUZEENTZAKO GIDA

2 Gorputz **biluziak** **erakarmen** handia du zinean. Aktore-aktoretasak famatuak direnean, **horiek ilarak** zine-aretoen aurrean! Eta telebistan zer esanik ez. Amerikar batek begiluzeentzako **datu-billegia** sortu du. Zer azaltzen den zine-gida horretan? Adibidez, zein minututan ikusten zaion aktoretari bularra, edo aktoretari ipurdia (gustu txarrekoa omen da aktoreen beste ezer erakustea). Telebistetako trailer-egileek **baietz erosi**! Lana erraztu egingo die horrek.



IZEN-ABIZENEKIN BADA HAMAICA GORABEHERA

2 Jexux Txintxurretaren telefono-zenbakia bilatu nahi duzu telefono-gidan. Non aurkituko? CHn, noski! Chinchurreta Jesús azalduko da seguruenik. Eta gurean ez da horrekin inor harritzen. Haren Estatuko Nortasun Agirian, ENAn, ere horrelaxe azalduko da eta. ENAn euskal grafia erabiltzeko eskubidea badaukagu, bai, baina paperak eta paperak bete behar dira horretarako. Arrasateko AED **elkartek** herritarrei **aldaketa** egiten lagundu die. Gero, Donostiako BAGERA elkarteak hartu dio txanda.

Grafia aldatuko duzue agian. Baina, baietz erdal azentuarekin segi! la komunikabide guztietan erdaraz esaten dituzte euskal abizenak.

KANPOTARRA SUSMAGARRI

2 Nafarroako herri txiki batean gertatua. Mediku batek etxe zahar bat **eraberritu** du. Kanpoko jende asko joaten da bertara sendatu nahian. **Egonaldiak** egiten dituzte han. Herrikoek toki askotako matrikulak ikusten dituzte kanpoan: BI, SS, VI, V, M... Medikuek ez du harremanik herrikoekin, eta laster hasi dira **zurrumurruak**: «Emakume asko ibiltzen da hor. **Auskalo** zer egiten duten!», «Sendatu? Bai, zera!». Herriko tabernan zeresana ugari eman du etxe horrek. Mutilzaharrez **jositako** herria **asaldatuta** dago.



ARGAZKIAK: X. ELGEZABAL



DENETIK JAKIN BEHARRA

2 Komunikabideek ez diete pertsonaia famatuei bakerik ematen, beti galdezka. Edozertaz galdetzen diete: **lanbideaz**, beren **zaletasunez**, politikaz, ekologiaz, kirolaz...; eta, jakina, ezin gai guztiak menderatu. Behin baino gehiagotan **txorakeriak** esango dituzte. Horixe aitortu dio Bernardo Atxagak kazetari bati, inor **ez dela gauza** hogei gai baino gehiagoz itxurazko **iritzirik** emateko.

BEGILUZE.- Guztia ikusteko mina duen pertsona, kuskuseroa. Curioso/a.

BILUZI.- Gorria, larrugorria. Desnudo/a.

ERAKARMEN.- Erakar(ri)+men: Erakartzeko ahalmena. Era berean: Ikusmen, entzumen, usaimen...

HORIEK ILARAK!- ¡Qué cosas!

DATU-BILTEGI.- Base de datos.

BAIETZ EROSI! - ¡A que sí lo compran!

ABIZEN.- Deitura. Apellido.

HAMAICA GORABEHERA.- Muchos altibajos.

ELKARTE.- Asociación.

ALDAKETA.- Cambio.

ERABERRITU.- Restaurar.

EGONALDI.- Estancia.

ZURRUMURRU.- Esamesa, marmarra. Rumor.

AUSKALO.- Batek daki. Véte a saber.

JOSI.- Bete. Llenar.

ASALDATU.- Arregatu, urduritu. Perturbar.

LANBIDE.- Ogibidea, ofizioa. Profesión.

ZALETASUN.- Afizioa.

GAUZA IZAN.- Gai edo kapaz izan. Ser capaz.

IRITZI.- Aburua, ustea. Opinión.

MUSIKA, IA MUSUTRUK

2 «Utziko al didazu Eric Clapton-en azken diskoa? Grabatu eta berehala **itzuliko** dizut», batek. «Baina, azkar itzuli! eta ondo zaindu diskoa», lagunak. Lagunartean jende askok egin izan du hori. Diskoetxeek eta musikariek ez zuten **begi onez ikusten**, baina tira! Gaur egun, ordea, ez dago lagunari eskatu beharrik. Konpak diskak dendan aukeratu, etxean grabatu eta dendara itzultzen ditu jendeak. Horrelako denda-mordoska **zabald**u da azken urteotan.

Milaka konpak disk daude apaletan, mota askotakoak: popa, pop-rocka, jazz, dantzarako musika, new agea, pelikuletako musika, Euskal Herrikoa, klasikoa... Lehen begi-kolpean, Euskadi Irratiko musika-kritikoei gure aldizkarian aipatutako disko-pare bat aurkitu dugu: *Blur* eta *Madredeus* taldearen *Ainda* Beatles-en lanik ere bada, baina **gehi**enbat gaur-gaurko diskoak daude agerian. Bideoklubetan bezala, disko batzuetatik ale bat baino gehiago daukate, jende askok eskatzen dituelako.

Ezkutuan ibili beharrik ez

Denda honetako **bazkide** egiteko, 2.000 pezeta ordaindu behar dira. Txartel horrekin hamar disko eramateko eskubidea du. Handik bi

egunetara ekarri beharko ditu bueltan. Etxean grabatzeko ekipo **aproposik** ez badauka, dendakoaz baliatuko da. Grabazioa ez da, hortaz, ezkutuan egiten.

denda askotan ez daukazu kanta bakar bat ere entzuterik. Beraz, ez dakizu zer erosten duzun».

Diskoetxeak, hala ere, ez daude batere pozik. Jendeak



ARGAZKIA: X. ELGEZABAL

Hala ere, jende guztiak ez du grabatzeko hartzen. Bada diskoa ezagutzeko eramaten duenik ere. «Disko-dendetan konpaktoa erosi nahi duzunean, kanta-pare bat edo entzungo dituzu —dio Maurok, denda-katea honen arduradunak—. Gero, etxera eramán, eta hura **ustegabea**! Gainerako kantak **kaskarrak**. Eta

merke grabatzen badu, zertarako erosi? Musikariek ere, dirua salmenten **arabera** jasotzen dutenez, diru gutxiago izango duten beldurrez daude. Eta zertarako musika sortu saltzen ez bada? Dena den, ez da ahaztu behar, **Egile Elkar**teak dirua jasotzen duela grabatzeko zinta saltzen den bakoitzean.

MUSUTRUK.- Doan, dohainik. Gratuito.
ITZULI.- Bueltatu. Devolver.
BEGI ONEZ IKUSI.- Onartu. Ver con buenos ojos.
ZABALDU.- Ireki. Abrir.
GEHIENBAT.- Batez ere, batik bat. Sobre todo.
BAZKIDE.- Partaidea, sozioa. Miembro.

APROPOS.- Egokia. Adecuado.
USTEGABE.- Ezustea. Sorpresa.
KASKAR.- Eskasa. Regular, malo.

ARABERA.- Según, de acuerdo a.
EGILE ELKARTE.- Sociedad de Autores.

HARPIDETZA-ORRIA

HABE

euskara ikasten ari garenon aldizkaria

Helbide honetara bidali behar da:

HABE aldizkaria

**Vitoria - Gasteiz kalea, 3
20009 DONOSTIA**

HABE Aldizkaria jaso nahi dut etxean.

Honela ordainduko dut: Kontu korronte bidez (Urtean hamaika ale: 2.950 pezeta).

Hauxe da: Bankua edo Aurrezki-Kutxa

H/Sukurtsaldatza

Zenbakia:

Izen-deiturak:

Kalea:

Zenbakia:

Herria:

Probintzia:

Bai, ESAN

HABEK ZUZENDARI BERRIA

HABE erakundeak zuzendari berria du urriaren 16az geroztik: Josune Ariztondo ondarrutarra. Hizkuntza Politikarako Sailordetzatik dator, hain zuzen Euskara Sustatzeko Zuzendari izatetik. Berari eskaini diogu ale honetako elkarrietzeta nagusia.



Ezkerretik eskuinera, Martin Etxeberria, Zuzendari-ohia, Mari Karmen Garmendia, Kultura Sailburua, Jose Mari Zeberio, Kultura Sailburuordea eta Josune Ariztondo, HABEren Zuzendari berria. Martin Etxeberriaren eskutik, HABEren egoitza eta lankideak ezagutu zituen Josune Ariztondok.



Lehen lan-egunean Donostiako egoitzako langile guztiak banan-banan ezagutu zituen Josune Ariztondok.

ARGAZKIA: HABE



«ARI NAIZELA» EGUNKARIA-REN EUSKARA- -IKASLEENTZAKO GEHIGARRIA

2 Urriaren 21az gero berritua **iristen** zaigu *Euskaldunon Egunkaria*. Besteak beste, astearteetan euskara ikasten ari diren ikasleentzako gehigarri berezia hasi dira argitaratzen. **HABE, AIZU** eta beste aldizkari didaktiko batzuk bezala, **orribarrenez horniturik** datoz idazlanak. Ongi etorri!

VII. GERRIKO IKERLAN-SARIKETA

2 Gipuzkoako Goierri **eskualdeari** buruzko zientzi alorreko gaia behar du izan, euskaraz **sortua**. Luzera, gutxienez 100 orri (Din A-4koak). 1996ko martxoaren 22a baino lehen bidali behar da honako helbide honetara:

Goiherriko Euskal Eskola Kultur Elkarte
VII. Gerriko Ikerlan-Sariketa
Elosegi 16, 1.a ezker
20 210 LAZKAO (Gipuzkoa)
Euskal Herria (Europa)

Epaimahaikoek puntuok hartuko dituzte kontutan:

- Edukinaren** zientifikotasuna.
- Dagokion material** grafikoz eta bibliografiaz hornitua izatea.
- Euskararen **erabilaren zuzentasuna** eta **egokitasuna**.

Sariak: aurrenekoari 375.000 pta. edo 15.000 libera,
bigarrenari 275.000 pta. edo 11.000 libera, eta hirugarrenari
175.000 pta. edo 7.000 libera.

VII. GERRIKO Ikerlan-Sariketa


Antolatzaileak:

Goiherriko Euskal Eskola, Maizpide Euskaltegia eta
Lazkao Udaleko Kultur Batzordea

Laguntzaileak:

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila,
Euskadiko Kutxa eta Kutxa Fundazioa

Goierri, 1995



UNESCOREN ALBISTARIA ARRASTO BERRIAN AURRERA

2 96. alean urratutako arrastoari **jarraiki, itzulpen landua** eskaintzen digu ale honek. Itzulpengintzari buruzko lau orrialdeko gehigarri ere hortxe aurkituko duzue.

97. aleak «Eguzkia, antzinako mitoak, teknologia berriak» gai monografikoa jorratzen du. Gainerako beste sailetan Montserrat Caballéri egindako elkarrizketa, Federico Mayor Unescoren zuzendariaren kronika, mamboari buruzko idazlana, demografi **hazkundeak elikagaietan** duen **eraginari** buruzkoa...

GEHIGARRI.- Suplemento.
IRITSI.- Heldu. Llegar.
ORRIBARREN.- Pie de página.
HORNITU.- Dotar.
IKERLAN.- Azterlana. Trabajo de investigación.
ESKUALDE.- Comarca.

SORTU.- Asmatu. Crear.
EDUKI.- Mamia. Contenido.
DAGOKION MATERIALA.- Material que le corresponde.
ERABILERA.- Uso.
ZUZENTASUN.- Corrección.
EGOKITASUN.- Propiedad.

JARRAIKI.- Segituz. Siguiendo.
ITZULPEN.- Traducción.
LANDU.- Jorratu. Trabajar, cultivar.
HAZKUNDE.- Garapena. Crecimiento.
ELIKAGAI.- Alimentación.
ERAGIN.- Influencia.

NEKANE SAN MIGEL: «Epaimahai herritarrean abstentziorik ez dago»

3 Nekane San Migel epailea arrasatearra bada ere, Tolosako **epaitegian** ari da lanean. Epaimahai herritarren legeaz egin diogu galde eta hark, bide batez, lege berri horretan epaimahaiarekin zerikusirik ez duen aldaketa **arriskutsu** bat badela esan digu, eta, mesedez, atal hori ere elkarrizketan sartzeko. Beste epaile askok bezala, ez zuen argazkirik nahi.

HABE. - Europako herrialde gehienetan al dago honen antzeko legea?

NEKANE SAN MIGEL. - Frantzia badago, Alemanian ere bai. Nik uste dut gehienetan dagoela. Baina, egia esan, ez dakit arrazoi politikoak direlako, arrazoi praktikoak direlako, oso zalantzan jartzen ari da epaimahai herritarra beste leku batzuetan.

Epaimahaiaren filosofia da herritarrek botere guztietan parte har dezatela. Gaur egun, botere judizialean parte hartze formal hori falta dute. Legislazioan hartzen dute parte, exekutiboan ere bai; hauteskondeen bitartez beren borondatea azalduta, nolabait behintzat hartzen dute parte. Baina epaitegietan ez oraindik. Konstituzio moderno gehienetan **aurrikusita** dago aukera hori, eta hemengoan ere bai. Frantzia eta zalantzak jartzeko arrazoiak zein den? Agian jendeak, nahiz eta epaileak asko kritikatu, eta nahiz eta pentsatu beraiek beste era batera **jokatuko** luketela, aukera ematen zaienean, ez dutela parte hartu nahi.

H. - Ze motatako **legehausteak** hartzen ditu kontuan lege honek?

N.S.M. - Bizitzaren kontrako delituak, funtzio publikoan egin daitezkeen delituak, **ohorearen** kontrakoak, eman beharreko laguntza **ukatzeagatik** gertatzen direnak —persona bat kaltetua ikusten dugunean, istripuren batean edo, kaltetuari laguntzera behartuta gaude—,



ARGAZKIAK: X. ELGEZABAL

Tolosako epaitegian ari da lanean Nekane San Migel.

intimitatearen eta norberaren etxebizitzaren kontrakoak, askatasunaren kontrakoak eta **ingurugiroaren** kontrakoak. Horiek dira, zazpi delitu-mota.

H. - Sexualitatearekin zerikusia dutenak, adibidez, **baztertu** egin dira...

N.S.M. - Momentuz, bai. Nik hala ulertzen dut behintzat. Hemen jartzen du askatasunaren kontrako delituak, eta ez ditu askatasun sexualaren kontrakoak aipatzen.

H. - Zergatik ez dira azaltzen?
N.S.M. - Ez dakit. Lege hau oso

EPAIMAHAI HERRITAR. - Jurado del pueblo.

EPAITEGI. - Epai+tegi. Epaitzeko toki. Juzgado.

ARRISKUTSU. - Arrisku+tsu.

Peligroso. Era berean: harritsu, urtetsu, osasuntsu...

AURRIKUSI. - Prever.

JOKATU. - Actuar.

LEGEHAUSTE. - Infracción de la ley.

OHORE. - Honor.

UKATU. - Uko egin. Denegar, rechazar.

INGURUGIRO. - Medio ambiente.

BAZTERTU. - Zokoratu. Marginar.

eztabaidatua izan da arrazoi askorengatik. Hor, dudarik gabe, ideologiagatik ere izango da. Batzuei irudituko zaie jendearen parte hartzea ez dela egokia edo. Baina zergatik aukeratu diren hauek, eta ez beste batzuk? Ez dakit. Badakit batzuek **urriagoa** nahiago zutela, aurrena esperientzia bezala ohorearen kontrako delituetatik hastera, edo ohorea eta bizitzaren kontrakoekin bakarrik, eta poliki-poliki hori gehituz joan. Baina ez zen **onartu**.

H.- Epaimahaiak **osatzeko irizpideetan**, kontuan hartzen al dira sexua, adina eta?

N.S.M.- Nik legea aztertu dut, eta ez dut horrelakorik ikusi. **Entzutegi** probintziazalean aukeratuko dute zeinek hartu behar duen parte aurretik hautatutakoaren artean, bederatzi lagunekoa multzoak eginda.

Lehenengo batean telebistan entzun nuen: «nik nahiago dut epaile teknikoak, **ze** jendeak **muturretara** jotzen du: *heriotz zigorra, heriotz zigorra!* »... Horrelako kontuak entzuten dira. Ildo honetan, errepublika-denboran emakumeei boto-eskubidea eman zietenean, jende guztiak esaten zuen berez oso ondo zegoela. Baina, ezkerreko alderdi batzuek esaten zuten emakumeek botoa eskuineko alderdiei emango zutela. Eta hori pentsatzekoa zela. Eta baliteke epaimahaiaren kontu honetan ere antzerakoa gertatzea. Badakigu jendeak ze jarrera ideologikoa daukan, eta ez ote da hobe izango epaile teknikoek epaitzen jarraitzea? Nik uste dut muturretara jotzeko arrisku hori asko **mugatzen** dela lege honetan. Kontuan hartu behar da juradoak parte hartu aurretik, ikerketa guztia egin behar dela. Bukatutakoan, ikertu den ekintzan delitu-**susmoak** baldin badaude, eta pertsona ezagunen kontrakoak baldin badira, orduantxe bakarrik hasten dira epaimahaiakoak lanean. Eta, beste alde batetik, kontuan hartu behar da jendeak asko hitz egiten duela, baina gero ez dela hain ausarta zigorrak jartzerakoan.

Eta, gainera, epaile lehendakariak ere **ziurtatzen** du **zuzen jokatu**ko dutela. Epaiketa



Epaile euskaldun honek, beste askok bezalaxe, ez zuen argazkietan azaldu nahi.

bukatutakoan, eta epaia eman aurretik, **galdeketa** bat aurkeztu behar die ekintzari buruz, delitu horretan egon diren zirkunstantzia guztiei buruz. Galdeketa horretan ondo azalduko die iuradukoei ekintza eta zirkunstantzia bakoitzak ze ondoren daukan salatuarengan, **errudun** ala errugabe den erabakitzeke.

H.- Aringarriak badauden ere erabakitzen dute

N.S.M.- Bai. Baregarriak edo zigorra gehitzekoak.

H.- Beste herrialde batzuetan epaimahaiak **guztiak bat etorri** behar dute zigortzeko.

N.S.M.- Kasu honetan ez. Zigortzeko, bederatzi botoetatik zazpi behar dira, eta libre uzteko bost.

H.- Epaileetako batek zalantzak dituenean, botorik ez emateko eskubidea izango du, ezta?

N.S.M.- Ez. Erruduna ala errugabea, honi baietz ala honi ezetz esan behar du. Abstentziorik ez dago. Guk ere askotan izaten ditugu zalantzak epaitzerakoan, eta nahitaez erabaki beharra daukagu. **Gizarte**a erabakiaren bila dator epaitzegira.

H.- Eta epaiketak euskaraz egiteko modurik izango al da?

N.S.M.- Epaimahaiakide guztiak euskaldunak balira, ez litzateke arazorik izango.

H.- Horren **baitan** al dago?

N.S.M.- Bai. Eta idazkariak euskara ulertzen baldin badu eta fede emateko gai baldin bada, ez dago inongo arazorik. Eta orain artean ere ez. Epailea, fiskala, abokatuak, idazkaria eta pertsona guztiak euskaraz baldin badakite, den-dena euskaraz egin liteke. Arazoa izaten da guztiak ez direla euskaldunak izaten, eta itzultzaileak hartu behar izaten direla. Eta orain ere berdin izango da. Pertsona batek

eskubide osoa dauka euskaraz egiteko, eta hori ere bideratu beharra dago.

Beste gauza bat ere esan nahi nuke lege honetaz. Lege honen bidez aldaketa prozesalak egin dira, eta aldaketa horiek luzatu egingo dute prozedura, oraindik gehiago, eta justizia **geldotu**. Baina jendeak jakin behar du beste gauza batzuk ere aldatu direla. Momentu honetan, atxilotu bat ekartzen baldin badigute, epaileok erabakitzen dugu pertsona hori askatu edo kartzelara eramane. Lege hau martxan jartzen denean, guk ezin izango dugu hori horrela erabaki. Hemendik aurrera, atxilotua ekarri eta hiru egun barru deitu behar diegu nahitaez fiskalari, salatuaren abokatuari eta kaltetuaren abokatuari —kaltetuak abokaturik aukeratu baldin badu— eta, kartzelara bidaltzeko, horietako norbaitek eskatu behar du kartzela-zigorra. Inork ez baldin badu eskatzen, nahiz eta epaileari kristoren **astakeria** iruditu, kalean geldituko da. Horrek arazo larriak sortuko ditu.

H.- Nolakoak?

N.S.M.- Fiskalak ez dira herrietako epaitzegetan egoten; Donostiara deitu behar diegu etortzeko esanez. Eta horrek askotan zera eragin lezake: guk pertsona hori libre uzteko asmoa eduki arren, legea bere horretan uzten badute —hitz egin da erreformatxo bat egingo ote den—, egon daiteke hiru egun atxilotuta. Beste adibide bat: kaltetuek normalean ez dute abokatu lehengotik aukeratzeko, aurrerago aukeratzeko dute. **Eman dezagun** fiskalak askatasuna eskatzen duela, defentsak dudarik gabe askatasuna eskatuko du eta kaltetatuak ez duela abokaturik. Abokatu horrek kartzela-zigorra eskatuko luke, baina, kaltetuak abokaturik ez duenez, epaileak aske utzi behar.

URRI.- Murrizta. Restrungido.
ONARTU.- Ontzat eman. Aceptar.
OSATU.- Formar, integrar.
IRIZPIDE.- Criterio.
ENTZUTEGI.- Audiencia.
ZE.- Bada. Pues.
MUTUR.- Izkina, ertza. Extremo
MUGATU.- Zedarritu, xedatu. Limitar.
SUSMO.- Indicio.
ZIURTATU.- Baieztu. Asegurar.

ZUZEN JOKATU.- Behar bezala jokatu. Actuar correctamente.
GALDEKETA.- Galdera-zerrenda. Cuestionario.
ERRUDUN.- Hobenduna. Culpable.
ARINGARRI.- Arin+garri. Atenuante.
GUZTIAK BAT ETORRI.- Guztiak ados egon. Estar todos de acuerdo.
GIZARTE.- Sociedad.

BAITAN.- Dependiendo de.
GELDOTU.- Geldo+tu. Mantsotu, mofeldu. Frenar, relantizar.
ASTAKERIA.- Burugabekeria. Disparate, burrada.
EMAN DEZAGUN.- Demagun, egin dezagun. Supongamos que.

EPERRAK ESNEGAINAREKIN

2 Osagaiak: bi eper, xerez basokada-erdia, bi goilarakada **gurin**, tipula-erdia, basokada bat esnegain eta gatza.

Eperrak garbitu, barrutik eta kanpotik **gatza eman** eta lotu. Gero, kazola batean gurinetan gorritu piska bat, tipula gehitu eta estali. **Su motelean** eduki erregosten. Alde guztietatik gorrituta dagoenean, ardoa erantsi, eta sutan eduki ordu bete inguru. Beharbada, ur-piskat ere beharko du. Beste ontzi batean esnegaina gazitu, eta nahastu eper-saldarekin. Bukatzeko, eperrak salda horretan egosi beste piska batean.



HAUTSAK KENDUTA, ARGIAGO

2 **Gizonezkoei** ez zaie sekula **bururatzen**: bonbilak ere garbitu egin behar dira. Bestela, hautsak ilundu egiten ditu gelak. Sukaldean, berriz, **koipea** ere kendu behar zaie. Amoniakoa eta ura nahasian erabili horretarako.



PATATA-TORTILA BERRITUA

2 Betikoa beste era batean **maneatu** eta denak pozik. Nola egiten den hori? Arrautzaren gorringoa eta zuringoa **bereiztu**. Zuringoa poliki-poliki jaso eta, ondoren, gorringoarekin nahastu. Gero, patata egosiarekin batera ipini sutan. Patata-tortila arinagoa, ezta?



ESKUAK LEUN-LEUN

2 Eskuak asko **lehortzen** eta **zartatzen** dira platerak garbitzen. Hori gerta ez dadin aukera asko daude:

- a) **Otorduak** etxetik kanpora egitea.
- b) Neskameari edo etxeko bati uztea lan **astun** hori.
- c) Ontziak garbitzeko makina erostea.
- d) Gomazko goanteak janzteak.
- e) Txandaka **egitea harrikoa**, eta xaboi gutxi erabiliz. Tarteka-marteka **olo**-irinaz **ahia** egin eta eskuak ordu-laurdenez eduki hantxe.

EPER.- Perdiz.
ESNEGAIN.- Nata.
GURIN.- Mantequilla.
GATZA EMAN.- Echar sal, salar.
SU MOTEL.- Fuego lento.
GIZONEZKO.- Gizasemea. Varón.
BURURATU.- Gogoratu. Venir a la mente.

KOIKE.- Grasa.
MANEATU.- Atondu, prestatu. Preparar.
BEREIZTU.- Aparte jarri. Separar.
LEUN.- Suave.
LEHORTU.- Idortu, sikatu. Secar.
OTORDU.- Bazkaria edo afaria.

ASTUN.- Pisua. Pesado.
HARRIKOA EGIN.- Ontziak garbitu. Fregar la vajilla.
OLO.- Avena.
AHI.- Papilla.

SORGINA ETA EMAKUME EDER BAT

3 Joxe Arratibel Zurutuza (Ataun, 1923). Fraile beneditar dugu Estibalizen, Gasteiz ondo-ondoan. 1940an sartu zen Lazkaoko komentura eta hamar urte geroago **apaiztu**. Hego Ameriketara ibili zen misiotan, Venezuelara. Lazkaon nahiz Caracasen, aldean ibili zituen umetan baserrian entzundako ipuinak: kontu zaharrak, alegia. Estibalizen da 1964az gero. Gaztetatik erakutsi du kontalari-**sena** eta askok agindu ere agindu zion kontu haiek paperean jartzeko. Idatzi zituen halako batean eta argitaratu: *Kontu Zarrak* (La Gran Enciclopedia Vasca, 1980), eguntalako bitxia, hala garai hartako nola egungo literaturan. Harrezkero, bi liburu kaleratu zituen gazteentzat, *Kontu Zarrak* hartako zenbait istoriorekin: *Mari Xor* eta beste (EREIN, 1986), eta *Dirua neurtzeko ontzia* (EREIN, 1986). Itzuli ere zuen neska-mutil koxkorrentzako lan bat: *Ispilu urdinak* (Malentxo Retegi, EREIN, 1990). Egun, bere liburuaren gaineko **xehetasun** sakonak idatziak dituzte Joxemartin Apalategik *Introducción a la historia oral. Kontuzaharrak (Cuentos Viejos)*, Barcelona, Anthropos. 1987, eta Julio Camarenak eta Maxime Chevalier-ek *Catálogo tipológico del cuento folklórico español. Cuentos maravillosos*, Madrid, Gredos. 1995, **zein baino zein** lan interesgarriagoak baitira biak ere. (Marraskia Antton Olariagarena da)

Palazio eder batean bizi ziren senar-emazte batzuk, seme-alabak, eta neskame eta morroi asko. Oso aberatsak ziren, lurralde haundiak zituzten eta, gainera, nahiz herritik urruti bizi, hango arazoetan ere sartzen ziren.

Egun batean joan ziren senar-emazteak herrira, zaldizko kotxe baten bila, **ibilaldi** bat egin behar zutela eta. Bero haundia egiten zuen egun hartan eta, herrira iristean, iturri baten ondoan gelditu ziren biak. Senarrak esan zion emazteari:

— Zu geldi zaitez hemen, iturri honen itzalean, nik zaldia eta kotxea ekarri arte.

Senarra joan zen herri barrura, eta emaztea han gelditu zen bere zain. Bitarte horretan etorri zen iturrira han auzoko tabernako neskame bat, lurrezko **pitxar** bat eskuan zuela. Jarri zuen pitxarra urez

betetzen eta iturri inguruko putzuan, **errainu** eder bat ikusi zuen: emakume dotore baten aurpegia azaltzen zen errainu hartan. Neskame hark ez zuen beste aldean zegoen emakume hura ikusten eta, horregatik, bere buruaren errainua hain ederra zela ikustean, hartu pitxarra, eta mila puska egin zuen esanez:

— Ni hain ederra izan eta ni iturrira bidaltzen!

Itzuli zen tabernara, eta nagusiari berdina esan zion:

— Ni hain ederra izan eta ni iturrira bidaltzen!

Hautsi dut nik pitxarra, eta ez naiz gehiago iturrira joango.

Neska hori beltza eta itsusia zen, baina errainu hartan bere burua hain ederra ikustean **harrotu** egin zen, eta zerbait iruditu zitzaion iturrira ur bila joatea.

APAIZTU.- Apaiz+tu. Abade egin. Ordenarse sacerdote.

SEN.- Zentzua. Instinto.

XEHETASUN.- Nabardura, zehaztasuna. Detalle.

ZEIN BAINO ZEIN... AGO.- A cual más...)

IBILALDI.- Bidaia, txangoa.

PITXAR.- Txarroa. Jarro.

ERRAINU.- Isla, dirdaia. Reflejo.

HARROTU.- Oilartu. Enorgullecerse.

Nagusiak antzeman zion zer pentsatzen zuen eta, horregatik, berriz ere iturrira joatera behartu zuen, baina oraingoan **errada** bat eman zion.

Gogo txarrez bada ere, neskamea joan zen iturrira eta han lehengo errainu eder hura ikustean, hartu errada eta dena txikitu arte ez zen gelditu.

Bitartean ez zen isiltzen:

— Ni hain ederra izan eta ni iturrira bidaltzen!

Tabernara itzuli eta nagusiari berdin esan zion:

— Zer uste duzu zuk? Ni hain ederra izan eta ni iturrira bidaltzen!

Nagusia haserretu zen, baina neskame **zital** hura berearekin ez zuela atera behar pentsatuz, **zahato** txiki bat eman, eta berriz ere iturrira bidali zuen, oraingoan ez zuela behintzat hautsiko bere buruari esanez.

Neskamea iritsi zen iturrira, eta oraindik errainu eder hura han ikustean, hasi zen beste aldietan bezala bota txikiarekin bazter guztiak jotzen, isildu gabe esanez:

— Ni hain ederra izan eta ni iturrira bidaltzen!

Bitartean, beste aldean zegoen emakume hura; barreari ezin eutsirik zegoen, eta **eztul** bat atera zitzaion berak nahi gabe.

Neskameak entzun zuen eztul hura eta zahato txikia utzi eta beste aldera joan zen, han zein ote zegoen ikustera. Emakume eder hura eserita zegoela ikusi zuenean, ahal zuen goxoena hitz eginez, galdezka hasi zitzaion:

— Zer egiten duzu hemen? Bakarrik al zaude?

— Nagusia herrira joan zait zaldi eta kotxe bila - erantzun zion emakumeak -, bero haundia egiten duela eta, ni hemen gelditu naiz itzalean, bera etorri arte.

— Asko **luzatuko** al du etortzen zure senarrak? - galdetu zion neskameak.

— Honezkero laster etorriko da -erantzun zion emakumeak.

— Nahi baduzu ileak orraztuko dizkizut bitartean...

Emakumeak ez zuen inolaz ere nahi, baina neskame hark atera zuen poltsikotik orrazi bat, eta haizeak banatuta zeuzkala eta, ileak orrazten hasi zitzaion. Neskame zahar hura ez zen isiltzen bitartean, galdetu eta galdetu. Zenbat seme-alaba zeuzkaten, senarrak zer ohitura zeuzkan, zenbat neskame eta morroi bizi ziren etxean isildu gabe. Halako batean, atera kolkoan zeraman orratz haundi bat eta...zasta! sartu zion emakumeari buruaren erdi-erdian. Emakumea uso eder bat **bihurtu** zen eta hegaka joan zen handik.

Neskameak jantzi zituen emazte haren soinekoak eta eserita jarri zen gizonaren zain.

Handik alde batera hau etorri zen eta, bere emazte eder haren tokian neska zahar hura ikustean, zer esan ez zekiela gelditu zen.



ERRADA. - Suila. Cántaro

ZITAL. - Gaiztoa.

ZAHATO. - Edaria gordetzeko larruzko ontzia. Bota.

EZTUL. - Tos.

LUZATU. - Berandutu. Tardar.

BIHURTU. - Bilakatu. Convertir.



— Horrenbeste denboran non egon zara? -hasi zen neskame beltz hura esaten, ahal zuen hobetoena beste emakume hark bezala hitz eginez-
ia etsita nengoen zerbaite gertatu ote zitzaizun edooo...

— Zaldia eta kotxea beste batek zituen etaaa... -erantzun zion senarrak-, baina, zuri zer gertatzen zaizu? Nik hain txuri eta eder utzi zaitut etaaa...

— Eguzkiak belztu nau -erantzun zion besteak-, buruko min haundia izan dut etaaa, horrek kalte egingo zidan.

Senarrak hartu zuen kotxean, ibilaldi bat egin zuten eta, gero, etxera joan ziren. Pentsatzekoa da seme-alabak eta etxeko beste guztiak nola geldituko ziren, ama eta etxekoandrea horrela ikustean baina, eguzkiak zoratu zuela etaaa..., berriz ere **bere onera etorriko** zela etaa... horrela gelditu ziren. Etxe hartan ez zegoen lehenagoko pozik eta, batez ere, nagusia bera zen gehiena kezkatua egoten zena, bere **erruz** emazteari gaixotasun hura etorri zitzaiola etaaa...

Iritsi zen udazkena, eta palazio inguru hartara uso asko etortzen hasi ziren. Neskame zahar hark ezin zituen usoak ikusi, eta beti **uxatu** egiten zituen.

Bazkalondo batean, familia guztia balkoian zeudela kanpora begira, uso eder bat gelditu zen etxe aurreko arbola baten gainean, eta denak harrituta gelditu ziren uso hura hizketan hasi zenean:

— Nagusi jauna ondooo?

—Bai -erantzun zioten.

— Eta beste denak ere baiii?

— Bai, eta zu?

— Ni ere bai -erantzun zien usoak, eta gero salto txiki batzuk eginez, -morena beltza eta ninatxo, morena beltza eta ninatxo- hasi zen esaten isildu gabe.

Inork ez zekien zer esan nahi zuen uso hark. Bakar-bakarrak neskame zahar hark antzeman zion beregatik ari zela; horregatik, bi besoak luzatuz **hoska hasi** zen esanez:

— Hoa hortik, uso zikinori! eta usoa ihesi joan zen.

Gehiagotan ere etorri zen uso hura, eta gauza berak esaten zituen. Nagusia geroz gehiago kezkatua zegoen, eta pentsatzen zuen sorginkeria bat bazegoela han... ondoan zeukan emakume hura hain zatarra eta itsusia; beste aldetik, berriz, uso txuri hura, galdera haiek...

Beste behin ere etorri zen uso txuri hura denak balkoian zeudela, eta beti bezala galdezka hasi zen:

— Nagusi jauna ondooo?

—Bai.


ETSITA EGON.- Etsia hartuta egon. Estar desesperada/o.

BERE ONERA ETORRI.- Reponerse.

ERRU.- Kulpa.

UXATU.- Aienatu, haizatu. Espantar.

HOSKA HASI.- Oihuka edo garraisika hasi. Comenzar a gritar.



— Beste denak ere bai?

— Bai, eta zu?

— Ni ere bai, morena beltza eta ninatxo! -eta salto txikiak egiten zituen.

Neskame beltz hura hasi zen, beti bezala bidali nahian, baina usoa oraingoan nagusiaren eskuetara etorri zen.

Neskame zaharrak kendu nahi izan zion eskuetatik, baina nagusia, bestaldera itzulita, usoa **leuntzen** hasi zen. Buruan koskor txiki bat zeukala iruditu zitzaion; lumak haize emanez apartatu zituen, eta orratz baten burua zeukala iruditu zitzaion. Heldu bi behatzekin eta atera zion orratz buru-beltz hura. Orratza ateratzearekin batera, emakume eder bat jarri zitzaion bere aurrean: bere benetako emaztea.

Denak harrituta hitzik gabe gelditu ziren.

— Ni naiz zure emaztea -hasi zen uso izandako emazte hura esaten-, zure zain iturri ondoan nengoela, etorri zitzaidan neskame beltz hori, eta ileak orratzeko aitzakiarekin sartu zidan orratz hori buruan; gero, uso bihurtuta gelditu naiz gaur arte. Neskame zahar hura sorgin bat zen, eta bere burua larri ikustean, ihes egin nahi izan zuen, baina ez zioten utzi. Denen artean lotuta jarri zuten.

Berehala zabaldu zen herri guztian palazio hartan gertatu zena. Hurrengo goizean, ogiak erretzeko **labea** ondo berotu zuten, eta sorgin zahar hura hantxe **kiskali** zuten.

Handik aurrera, palazio hartan, denak **zorutzen** bizi izan ziren.

Ikus kontu zahar honen laburpen bat D. Joxe Miel Barandiaranen Obras Completas, II. liburua, 326. orr. Sorgin gaiztoen ipuie tituluarekin.



LEUNDU.- Goxatu, laztandu. Acariciar.

LABE.- Horno.

KISKALI.- Abrasar.

ZORATU.- Pozez zoratu. Enloquecer de alegría.

ZENBAIT

¡Serrat!... Eres único!

3 Omenaldien **aroan**, gehienetan, bidearen bukaeraldera bizi diren musikariek eskaini izan zaizkie mota honetako diskoak. Baina Joan Manuel Serratek orain dela gutxi disko berri bat plazaratu du eta bere kontzertuetara beti bezalako **jendetza** erakarri du. Hala eta guztiz ere, haren musikak eta poesiak omenaldi berezi bat merezi izan dute. Horretarako garai, leku eta era ezberdinetako kantari eta taldeak elkartu dituzte: Juan Perro, Rosario, Kiko Veneno, Joaquín Sabina, Antonio Vega, Loquillo, Ketama, Lole eta Manuel, Tahures Zurdos, Carlos Varela, Sau, El Pele, Umpah-Pah, Antonio Flores eta Los Enemigos. Bakoitzak bere ukitua eman dio Serraten musikari, baina gehienetan behintzat, kantuen **ardatz**a, Serraten musikaren **berezitasuna**, ez da galdu. Eta horrela hasierako helburua bete da: Poble Sec-eko kantariak espero ez bazuen ere, merezi duen omenaldi dotorea jaso du.

CAMERATA RENACENTISTA DE CARACAS

AMERIKAKO IRAGANEKO MUSIKA 1. Alea
Zuzendaria: Isabel Palacios
DDD

2 Uda partean, Donostiako Musika Hamabostaldian jendeak bihotzez txalotu zuen Caracasko musika-talde bikain hau. Orduan talde horrek ekarritako grabazioa dugu hau. **Zoritzarrez**, gaur egun gure merkatuan Latinoamerikako **aintzinako** musika-grabazioak aurkitzea lan zaila da. Caracasko Berpizkundeko Kamerata 1978. urtean sortu zen Isabel Palaciosen zuzendaritzapean. Hasieratik, helburu nagusi bat izan dute: Latinoamerikako aintzinako musikaren **bilakaera** aztertu eta bultzatzea.

Europatik Ameriketara joan ziren musikarien eta Ameriketako bertako musikagileen lanak, ahots eta musika-tresnak lotzen dituzten doinuak grabatu dituzte konpakto honetan, euren produkziopean. Gure belarriak Ameriketako barrokorantz hurbiltzeko lehen urratsa izan liteke Caracasko talde bikain honen lana.

Marijo Oria

Gomendioak



GARI
Gari

THE ROLLING STONES
Stripped

MIKEL ERENTXUN
El Abraso Del Erizo

SOWETO STRING QUARTET
The P. Simon Grace...

QUEEN
Made In Heaven



ZENBAIT

Help
2.900 pta.

3 Help! Ingalaterrako, beno barkatu, Erresuma Batuko talde «berrien» **bilduma** bat da gure gaurko lehen **geltoki** musikala. Eta geltoki honek norabide asko ditu. Hori izaten da disko rekopilatorio hauen abantaila, batzuetan, eta alde ezkutua bestetan. Horrenbeste, kasu honetan hogeit, talde edo **bakarlarirekin** topo egitean, diskoak ez du inolako loturarik izaten. Ez dago **jarraipenik**. Bilduma-lan batetan askoz ere arruntagoa izaten da maite dituzun abestien maila berean zeure bizitza osoan gorrotatuko dituzun soinuak **jasan** beharra. Baina, tira, kasu honetan diru guztiak bosnir haurrentzako direla pentsatzeak, eta diskoak orokorrean aprobatu altu bat lortuko lukeela ikusteak animatu gaitu. Merezi du. Noel Gallagher, Stone Roses, Massive Attack, Portishead, The Boo Radleys, Suede... Gure laguntza ez die inork kenduko. *Help!*

PRETENDERS

The Isle Of View
2.800 pta.

2 Oraindik ere gogoan dut joan den hamarkadarekin batera nola ezagutu nuen *Pretenders* izeneko banda baten lehen diskoa. Azala zuria eta gainean lau **figurin roker**o, **larruz** eta beltzez. Denen buru emakume bat gainera. Tipo gogorak **ziruditen**. Baina lau haieetatik bi, beraiek baino gogorragoak ziren beste batzuekin «jolas» egiteagatik hil ziren. Geroztik asko **bigundu** dira *Pretenders* taldekoak. Diskoek eta kantuek ez dute garai bateko **lotsagabekeriarik**. Jendeak esaten du C. Hyndek **zuzeneko emanaldietan** sekulako indarra duela, *Femme Fatal* izaten jarraitzen duela... ez dakit... Disko berri eta akustiko bat da haren aurtengo apostua, Eguberriak ere **badatozenez**, **sekulako** salmentak lortuko ditu lan honek, hori **ziur**. Baina plater dietetiko horietako bat ematen du, ez kolesterol, ez alkohol, ez gatz... Lehen horrenbeste, eta orain hain gutxi.

Joseina Etxeberria

ARO.- Garaia, sasoia. Epoca.
JENDETZA.- Jende+iza. Jende asko. Gentío.
ARDATZ.- Eje.
BEREZITASUN.- Berezitasuna. Singularidad.
ZORITXARREZ.- Tamalez. Aurkakoa: zorionez.
AINZINAKO.- Behinolakoa, behialakoa. Antigüo.

BILAKAERA.- Garapena. Evolución.
BILDUMA.- Sorta, saila. Colección.
GELTOKI.- Parada, estación.
BAKARLARI.- Solista.
JARRAIPEN.- Jarrai(tu)+pen. Segida. Continuación.
JASAN.- Pairatu, nozitu. Soportar.
LARRU.- Cuero.
ZIRUDITEN.- Ematen zuten. Parecían.

BIGUNDU.- Samurtu. Aukakoa: gogortu.
LOTSAGABEKERIA.- Ausarkeria. Desvergüenza.
ZUZENEKO EMANALDI.- Zuzenean egiten den saila. Actuación en directo.
BADATOZENEZ.- Bai baitatoz. Pues vienen.
SEKULAKO.- Egundakoa. Enorme.
ZIUR.- Seguro.

AMAIA
ITURBIDE

Gelak eta zelaia



GELAK ETA ZELAIK

Amaia Iturbide
Erein, 104 orr., 1.100 pta.

Behin, hala entzun nion Bergarako UNEDeko irakasle bati, —**zoritxarrez, ixtekotan dira** euskal departamentua— literatur kritikoei baino hobe zela idazleei entzutea, idazleek eurek beren obrari buruz ziotena zela garrantzizkoa. Eta, ideia horri jarraiki, hona zer dioten Amaia Iturbidek *Maiatz* aldizkarian liburu honi buruz: «... nahiz eta inpresio **sakabanatuko** poema-liburua **eman** eta izan, analogiaren bidetik lerroraturik paralelismoan eta simetrian oinarritzen da, poemen arteko elkarriketak sortuz. Eta horrela, bidaia emeak eta askatasun eremuak diren gela eta zelaia egokituz doaz nire gogoeten eta sentimenduen espazioan, hala nola **amantalak** eta mantelak». Eta jarraitzen du: «Nire poemagintza orokorrari begira, **ardatzik** nagusienak bi dira: musika eta arkitektura poema eraikitzeak eta jasotzeko, barne erritmoa eta barne egitura irmatzeko. Artea ere ezinbestekoa zait... Zinez eta minez idatzitako poema-liburua da, egia pintatu nahi izan dudalako hitzen bidez... Badago zerbait salbatu nahia, mistika bat, disiplina bat...»

.Azkenik, Amaia Iturbidek berak aitortzen du liburu honetan hitzak garrantzi handiagoa duela irudiak baino.

Liburu honekin azken Lizardi Saria eskuratu zuen Amaia Iturbidek.



LORANEKE GAZTELUA

Jose M. Mendiola
Bruño, 108 orr., 725 pta.

Nahiz eta helduentzako hamaika **eleberri** idatzi dituen, Jose M. Mendiola ez da oso ezaguna gurean. Eta behin baino gehiagotan izan da saritua. Saririk garrantzizkoena aspalditxo **erdietsi** zuen, 1963an, Nadal saria.

Liburu hau misteriozko liburua da, nahiez eta izatez. Tentsioa, suspentsea, umorea... dituzte ipuinek, ipuin-sorta baita «Loraneke **gaztelua**», «Mila eta bat gau» liburuan antzera, kontalari batek, Matiasek, gazteluarekin lotura duten istorioak kontatzen dizkio gazteluko jabe berriari, Stanisla Lora jaunari, **zein baino zein misterioitsuagoak**. Ezustez betetako ipuinak dira, eta Stanislaoren modura, zu ere irrikitan utziko zaitu Matiasek, hurrengo gaua noiz etorriko den gogoarekin.

Suelto idazten du, hitz korapilotsuak erabili gabe, elkarriketa askorekin. Aise irakurtzen da, gustura. Baina euskarari **jantxixea** egon behar du irakurleak. Betiko euskaldunzaharrak ez du arazorik izango irakurtzeko.

Azkenik esan liburua itzulpena dela. Nik neuk ipuin guztiak irakurri ostean, liburuaren **iruzkina** egin dut, baina bigarren orrialdea letu dudanean konturatu naiz itzulpena zela. Eta iruzkina aldatu behar izan dut piskat. Itzultzailea gure lankidea, Pello Esnal da.

Bestalde, liburuaren bukaeran hemezortzi orrialde daude ipuinei buruzko ariketekin osatuta. Baina, mesedez, lehendabizi liburuarekin gozatu, eta gero, **nahi izatera**, ariketak egin. Irakurtzen ari zaren bitartean ez pentsatu gero ariketak egin beharko dituzula.



MATEO FALCONE ETA BESTE ZENBAIT ISTORIO

Prosper Mérimée
Elkar, 92 orr., 760 pta.

Hemen goian, hizki larrietan idatzi dugu liburuskaren izenburua, baina portadan bi zatitan banatuta dago izenburu hori: *Mateo Falcone* hizki handiagoekin idatzia dago, izenburuaren gainerako zatia baino. Eta **zinez**, hiru ipuinetatik Kortsikako Mateo Falconeri dagokiona da indartsuena, liburuaren atzeko aldean esaten den legez, lazgarriena. Indarra eta bizitasuna, ekintzek dute indarra eta bizitasuna hiru ipuinetan, baina baita pertsonaiek ere, nortasun handiko pertsonaia dira eta, batez ere lehendabiziko ipuinean, eta batez ere Mateo Falcone. Elkarri erabat kontraerriak daude zenbait pertsonaia, eta horrek izugarritzko tentsioa sortzen du. Ez dio irakurleari gauzak **patxadaz** hartzeko **astirik** ematen. Azkeneko bi ipuinak, batez ere azkena, lasaixeagoak dira erritmo aldetik.

Itzulpena Koldo Izagirreren da. Hitzaurre moduko batean idazle frantziarraz hitz egiten digu itzultzaileak, eta izena airtatu gabe, **lausengu** txiki bat —merezitakoa bestalde— egiten dio P. Mériméeren *Carmen* euskaratu duen Maria Garikanori. Eta nire iritziaz aparte, Koldo Izagirreren ere interesatuko zaizuelakoan, hona: «Estilo zehatz eta ironiko baten lantzaile, **mutiritasunez**, espanturik gabe, kontatuko dizkigu gertakari lazgarrienak. Biluztasun hori, kontatzen digunarekiko urruntze hotz honi zor dio Mériméek, nik uste, autore moderno bat izatearen ohore zaila. Eta noski, kontatzen digunaren bortitzari: egoera limiteetan sorturiko dramak».

Jon Zabalegi.

ZORITXARREZ. - Tamalez.

Aurkakoa; zorionez.

IXTEKOTAN DIRA. - Ixteko asmoa dute.

SAKABANATU. - Barreiatu. Dispersar.

EMAN. - Iruditu. Parecer.

AMANTAL. - Delantal.

ARDATZ. - Eje.

ELEBERRI. - Nobela.

ERDIETSI. - Lortu. Obtener.

GAZTELU. - Castillo.

ZEIN BAINO ZEIN

MISTERIOTSUAGOAK. - Cada cual más misteriosos.

EZUSTE. - Ustegabea. Sorpresa.

JANTXIXE. - Jantzi+xe. Jantzi samarra, trebatua. Bastante preparado, calificado.

IRUZKIN. - Azalpena. Comentario.

NAHI IZATERA. - Nahi izanez gero, nahi bada.

ZINEZ. - Benetan, egiatan. Realmente.

PATXADA. - Lasaitasuna. Tranquilidad.

ASTI. - Beta, denbora.

LAUSENGU. - Palagua. Halago.

MUTIRITASUN. - Ausardia. Atrevimiento.

GORKA SALMERON RUANDAN

3 Normalean sail honetara edadeko jendea ekartzen dugu, norbait dena delako. Batzuetan, oso gutxitan, **salbuespenak** egin ditugu, oraingoan bezala. Alde batetik, elkarrizketatua gaztea da oso, 30 urte betetzeko urte batzuk falta ditu. Bestetik, elkarrizketatuaren lanak du garrantzia, argazkilaria baita, edo, hobeto esanda, bere argazkietan azaltzen diren herriak: Legazpi eta Ruanda.

Gorka Salmeron 1985ean hasi zen argazkiak egiten. Curriculum zabala du, diru-laguntzak jaso ditu, eta zenbait sari ere bai. Madrilén eta Guadalajaran, esaterako. Urrian erakusketa bat egin zuen Zarauzko Photomuseum-en, Ruandako irudien erakusketa. Salmeron 1992an joan zen Ruandara. Hilabete egin zuen han argazki-ikastaro bat ematen. Baina ikastaroa **aitzakia hutsa** zen. Aitarekin eta Jokin Otaegi frailearekin joan zen Ruandara. Legazpikoa da frailea, Gorkaren maisua izandakoa, eta une hartan arte-eskola bateko zuzendari zen Ruandako **herriska** batean, *Nyundon* Fraileari esker, argazkiak egiteko erraztasunak izan zituen Gorkak. Milatik gora argazki egin zituen. Erlijioari buruz zuen ikuspegia aldatu egin du Gorkak hara joan zenez geroztik, hobera egin du. Baina eskola **pikutara joan** da.

Pigmeoak ere badaude Ruandan

Gerra bere **gordintasun** osoan 1994an hasi zen, baina 92an askotan izaten ziren **sesioak** eta liskarrak, hilketak: «1990an hasi ziren. Baina nork pentsatzen zuen ia milioi-erdi pertsona hilko zirela! Eta zera galdetzen diozu zeure buruari: nola ez dut gaur arte honen berri izan? Baina ni ez naiz horretan sartu. Ez dut ez hutu ez tutsien alde egin». Eta argazki bat erakusten digu. Familia bat da, ama tutsia da, eta bi neska hartu ditu

familian, biak hutuak. Beno, lehen zen familia, horko batzuk hilda baitaude... «Hango batzuek Euskal Herrira etorri nahi zuten, handik alde egin behintzat» esan digu.

Gorka Salmeronen Zarauzko erakusketan, ruandarrak lasai ageri dira, batzuk dantzan, gehienak lanean, baina argazkietan ez da guda-girorik nabari, ez da tiro-hotsik. Gure lagun batek zera egin zuen Zarautzera joan zenean: bera bakarrik omen zegoen erakusketan, eta argazki guztiak

ikusi ostean, aretoaren erdian jarri, begiak itxi, eta Ruandako herri osoa **aieneka entzun** omen zuen, garraizika heriotz minnez: hutuak, tutsiak eta pigmeoak. Pigmeoen argazki bat ere erakutsi zigun Gorkak: *Naramabuye* familia osoa. Aita eskua semearekin emanez, ez, ordea, alabari. Pigmeoak asko gutxitu dira gerraren ondorioz. Eurak dira Ruandako biztanle antzinakoenak. **Egun** apenas herriaren %3a izatera iristen diren. Euren artean ezkontzen dira pigmeoak.



«Guk umeak gizon beltzak aitatz **izutzen** ditugu, eta haien zati zuriak, huznuzunguak, dira mamuak. Ume hauek *Busasamana* —Jainkoak **habia** egiten duen lekua— bidean daude. Txikia **beldurak aidean zegoen**, begira nolako malkoak».

SALBUESPEN. - Excepción.
AITZAKIA HUTSA. - Estakurua besterik ez. Puro pretexto.
HERRISKA. - Herri+ska. Herri txikia. Era berean: mendiska, bideska, ontziska...
PIKUTARA JOAN. - Antzarrak ferratzera joan. Ir a freir espárragos.
GORDINTASUN. - Gogortasuna, laztasuna. Crudeza.


SESION. - Borroka, istilua, liskarra. Lucha, follón.
IZUTU. - Beldurtu, ikaratu. Atemorizar.
MAMU. - Fantasma.
HABIA. - Kabia. Nido.
BELDURRAK AIDEAN EGON. - Beldurak jota egon. Estar muerto de miedo.

ARETO. - Salón.
AIENKA. - Zinkurika, hasperenka, intzirika. Gimiendo.
EGUN. - Gaur egun. Hoy día.

«Argazki hau da gehien gustatzen zaidana. Lehen esan dizuet izugarri dotoreak direla, nahiz pobreak izan; nahiz **halamoduzko** arropak erabili, badute halako **duintasun** bat begiradan. Nik duintasun hori jaso nahi izan dut... Gero, Bruselara itzultzen zara, eta sartzen zaituzte exekutiboz **jositako** hotel batean, denak gorbata lepoan eta maletatxo eskuan... Hotelean, komunaren ondoan telefonoa, aulkian ere telefonoa. Jana soberan. Nondik irten naiz, eta nora etorri naiz? Ruandan toki txikian jende asko bizi da. Egurra dute **lehengai** nagusia, eta ez diote astirik ematen lurrari indarberritzeko. Ezin dute».

Argazkikoak arrantzaleak dira, baina forjariak ere atera ditu argazkietan kautxoeko **hauspoekin**, emakumeak **uzta** biltzen, nekazariak, artisauak, sukaldariak, umeak **adreiluak** eramaten, mekanikariak, unibertsitariak, **abeltzainak**: «Hau musikatresna bat da, bibolinaren antzekoa, **atzeritarrei** saltzeko, Alaitasunaren ereserkia jotzen zuten. **Azkarrak mutilak!**... Beste hauek zituzten arropa dotorenak jantzi zituzten guk argazkia ateratzeko».

Argazki hau lortzeko askotan egin zuen klik Gorkak. Bitartean, ruandarrak barrez **leherfu beharrean**. Gorkak ez zekien zergatik: «Uste zuten oso argazkilari txarra nintzela, klik askotan egiten ari nintzelako».





«Gizon honi argazki bakarra atera nion. Behin bakarrik egin nuen klik. Horren begiratuak **kilikatu** egin ninduen».




HALAMODUZKO.- Nolabaitekoa, korriente samarra.
DUINTASUN.- Dignidad.
JOSI.- Bete. Llenar.
LEHENGAI.- Lehen+gai. Materia prima.
HAUSPO.- Fuelle.
UZTA.- Cosecha.

ADREILU.- Ladrillo.
ABELTZAIN.- Ganaduzalea. Ganadero.
ATZERITAR.- Erbestekoa. Extranjero.
AZKARRAK MUTILAK!- Bai mutil erneak! ¡Qué espabilados!
LEHERTU BEHARREAN.- Lehertzeko zorian. A punto de reventar.

KILIKATU.- Eragin. Estimular.



Legazpiko industri paisaia, Ruandakoaren aurretikoa. Bi urteko lana. Legazpik hain berea duen lantegia, Patricio Etxeberria. Orain 40 urteko argazkiak dirudite, eta hori da lortu nahi zuena. Argazki hauek Israelera eraman zituen, erakusketa batera. Baita Madrilera, Cordobara, Guadalajarara, eta Zaragozara ere. Eta Bilbora. Eta Oreretara. Omenaldi egin nahi izan zion Legazpiri.



Gorka Salmeron.

Behar zaitut 2

Bart amets egin nuen, zurekin
Bart negar egin nuen, zuregatik
Ez dakit zergatik zutaz bakarrik pentsatzen dudan
Ez dakit zergatik zure **begiradaren oroipenak**
itzali duen nire burua, nire arrazoia
itzali duen nire arima, nire bihotza.
Eta sekula ez zaitut ikusi nahi nigandik **urrun**
Zatoz hona, **besarka nazazu**, ez iezadazu utz hiltzen
Zatoz hona, **irribarre egidazu**, lagun iezaidazu bizitzen
Zu **barik** ezer ez dakit
Zu barik ezer ez dut nahi
Zatoz, niregan ikusi behar zaitut
Zatoz, niregan maite behar zaitut.

Egilea:
A. Castillo (5. maila)
Bilbo Zaharra Euskaltegia

Aupa lagun, zer moduz? 1

Ni ez nago oso ondo. Triste
nabil, zu ez zaude nirekin eta.
Horregatik idazten dut eskutitz
hau. Ni bakarrik nago. Nire
beste lagunak urrun joan dira
eta zu **hurbil** zaude.

etorri nahi duzu ni bisitatzera?

Baina zuk gauza asko egin
behar duzu, eta ez daukazu
denborarik.
Nik denbora asko daukat
pentsatzeko, ez daukat lanik
eta.

Ez daukat inor hitz egiteko.
Mesedez, etor zaitez!
Deitu ezazu!
Idatz ezazu... zerbait egin!

Nik ez dut gehiago bizi nahi zu
gabe.

Zu ez bazatoz, ni beste batekin
biziko naiz.

Egilea: Alberto Delgado (1. maila)
Bilbo Zaharra Euskaltegia

BART.- Bart arratsean. Anoche.
BEGIRADA.- Mirada.
OROIPEN.- Oroitzapena, gomuta. Recuerdo.
ITZALI.- Apagar.
URRUN.- Urruti. Lejos.
BESARKA NAZAZU.- Abrázame.
IRRIBARRE EGIDAZU.- Sonríeme.
BARIK.- Gabe. Sin.
HURBIL.- Hurrean. Cerca.

BIZKAITIK BIZKAIRA, HAMAICA ALDIZ

2 Bizkaitik Bizkaira, Bizkaia ezagutzeko bidaiak dira. Eta **bidaiariak** herrialde horretako eskolaumeak dira. Aurtengo ikasturtean **OHO**ko, 7. mailako, ia 7.500 ikaslek hartuko dute parte. Ia 170 bidaiak **antolat**u dituzte, eta bakoitza 18 bat aldiz errepikatuko da. Ikasleek Bizkaia puntarik punta ezagutuko dute 52 lagunentzako autobus batean. **Meatzen** eta **burdinolen berri** izango dute, dorretxeak ezagutuko dituzte, mitologia, baserriak, Karrantzako **haitzuloak**, Gernikako Arbola, La Arboleda, XXI. mendera begira dagoen Bilbo...

Aurtengoa Bizkaitik Bizkairaren XI. edizioa da, eta Bizkaiko Foru Aldundiak antolatzen du.



MODIGLIANI BILBOTIK MONTREALERA

2 Datorren urtarrilean Amadeo Modiglianiren 450 koadro Montrealera eramango dituzte, hango Arte Ederretako museora. **Bitartean** Bilbon eta Madrilén **egongo dira ikusgai**. Bilbon BBVren San Nicolas **aretoan**, eta Madrilén «Reina Sofia» museoa. Madrilén 330 koadro, eta Bilbon 120 koadro. Bilbon, batez ere marrazkiak daude, batzuk inoiz **erakusketa** batean egon gabeak dira. Artelan guztiak Paul Alexandrek bildu zituen, Amadeo Modiglianiren **lagun minak** 1906-14 urteetan.

Baina argazkiko Modiglianiren koadro ezaguna ez dago Bilbon. Antzekoak bai.

EUSKARA UNIBERTSITATEAN

2 Lehengo batean, udan edo udazkenean, **HABE** Aldizkariako kolaboratzaile batek **hitzaldi** bat eman zuen Gipuzkoako institutu batean. Gaia hauxe zen: gurean unibertsitatean euskaraz ere ematen direla gai «potoloak», badaudela irakasle **trebeak** euskaraz.

XXI. mendean gaude ia, eta oraindik horrela ibili behar!



BI ANOETA

2 Egunkari batean irakurri genuen. Abraham Olano txirrindularia donostiarra zela. Eta ez da. Anoeta Tolosatik **gertu** dagoen herria da, eta baita Donostiako auzo bat ere. Auzo horretan dago Anoetako belodromoak. Askotan ibili da hor Olano, baina ez da auzo horretakoa, baizik Tolosako **bailarakoa**, Anoeta **udalerrikoa**. Ezkondu berriz, **Altzora ezkondu** zen. Eta Altzo ez da Donostia, Altza, **oraingo**z, bai. Beraz, ez nahastu Altzo eta Altza, eta Altzaga. Eta ez nahastu Altzaga eta Altzagarate.

BIDAIARI.- Bidaia egiten duena, bidaztia. Viajero/a.

OHO.- EGB

ANTOLATU.- Eratu, moldatu. Organizar.

MEATZA.- Mina.

BURDINOLA.- Ferrería.

BERRI.- Informazioa.

HAITZULO.- Harpea, kobazuloa. Cueva.

BITARTEAN.- Entretanto.

IKUSGAI EGON.- Estar expuesto.

ARETO.- Salón.

ERAKUSKETA.- Exposición.

LAGUN MIN.- Adiskide kutuna.

Amigo/a íntimo/a.

HITZALDI.- Charla, conferencia.

TREBE.- Iaioa, abila. Capacitado.

GERTU.- Hurbil, hurrean. Cerca.

BAILARA.- Eskualdea. Comarca.

UDALERRI.- Municipio.

ALTZORA EZKONDU.- Ezkondu eta

Altzon jarri zen bizitzen. Era

berean: baserrira ezkondu zen.

ORAINGOZ.- De momento, por ahora.

- 1.- Eguzkiaren sistemako planeten artean **alde** nabarmenak daude azaleko tenperaturan. Esaterako, batez ere, gure Lurreko tenperatura 15°C da eta Neptunokoa, beherena, -220°C. Venusek, aldiz, garaiena du, zenbatekoa?
 - A) 215°C
 - B) 465 °C
 - C) 612°C
- 2.- Noizean behin aditzen edo irakurtzen dugu **sugegorriren** batek hozka egin diola pertsonaren bati, gure inguruko eskualdeetan ere. Izan ere, animalia batzuk guztiz **pozoitsuak** dira. Zein da biologoen arabera, pozoirik indartsuena sortzen duen animalia?
 - A) Itsas liztorra deiturikoa, Australiako **marmuka**-mota bat (*Cubomedusae Chironex*)
 - B) Ginea Berriko pitohui izeneko txoria (*Pitohui dichrous*)
 - C) Ertamerika eta Hego Amerikako azkon-igela (*Dendrobates tinctorius*)
- 3.- Antonio Zavalak bildu zituen euskal esaera zaharretariko bat honela hasten da: *Lana egiten duena, beste...* Esango zenuke nola amaitzen den?
 - A) ... ezertarako balio ez duena
 - B) ... zerbait hoberen esperantza duena
 - C) ... inon **laketzen** ez dena
- 4.- Norbaitek bromidrosisa duzula esango balizu, zer egingo zenuke? Poztu, kezkatu, probetxua nola atera pentsatzen hasi, zer erremedio jarri behar zaion galdetu...? Izan ere, zer arraio da bromidrosis delakoa?
 - A) Ura lur azpian non den **sumatzeko** ahalmena
 - B) Oinetako usain txarra
 - C) Broma gutxi **jasateko** joera
- 5.- Gure odola proteina-iturri bikaina da zenbait **bizkarroirentzat**: zorriak, arkakusoak, etab. **Eltxoak** ere bereziki zaleak dira. Eltxoetan, ordea, zeinek ziztatzen du?
 - A) Emeek
 - B) Arrek
 - C) Gazteek bakarrik
- 6.- **Beruna** askotan erabili da pisu handiaren metafora gisa. **Alabaina**, metalen artean zein da, egiatan, pisu handienekoa?
 - A) Beruna
 - B) Iridioa
 - C) Molibdenoa
- 7.- Zine pornoaren antzezleen gehiegikerietatik urrun, giza espeziean arren **zakilaren** batez besteko luzera 12,7 zm ingurukoa **bide da**. Neurri **ertain** horren azpitik dabiltzanak, ordea, badu zertaz kontsolatu, zeren eta 200 kiloz gorako gorila arren zeraren batez besteko luzera zera baita...
 - A) 3,17 zm
 - B) 5,63 zm
 - C) 7,42 zm
- 8.- Musikazale fina zaren horrentzat, galdera erraz bat. Zein orkestak biltzen du **maestro** gehiago, sinfonikoak ala filarmonikoak?
 - A) Sinfonikoak
 - B) Filarmonikoak
 - C) Kopuruak ez du zerikusirik **auzi** honetan
- 9.- Material organikoen adina ezagutzeko karbono 14 isotopo egonkorra erabiltzen dute. **Nolanahi ere**, horren erabilera ere mugatua da, aztertu beharreko materialaren **antzinatasunak** 2.000 eta 30.000 urte bitartekoa izan behar baitu. Hala izanik ere, nolako fidagarritasunaz neur daiteke gai organikoen antzinatasuna metodo horren bidez?
 - A) ±50 urte
 - B) ±100 urte
 - C) ±200 urte
- 10.-Feministen kritika gogorak jasaten dituzten eta bihotzeko aldizkarietan maiz azaldu ohi diren **edertasun-lehiaketa** horietan lehenengoa Phineas Taylor Barnum ikuskari-enpresariari zor diogu. Hala, gerora zirko famatua sortuko zuenak 1855ean lehen edertasun-lehiaketa aurkeztu zuen. Azken denboretako ezagunenak, Miss Mundua eta Miss Unibertsoa, elkarren ondoko urte bitan abiatu ziren. Noiz?
 - A) 1933/1934
 - B) 1951/1952
 - C) 1960/1961
- 11.-Kortsarien ikurrina —**burezurra** eta bi zangar-hezur gurutzaturik fondo beltzean— noiz eta nork erabili zuen lehen aldiz?
 - A) Sir Francis Drake, 1580. urtean
 - B) Henry Morgan, 1667. urtean
 - C) Emmanuel Wynne, 1700. urtean
- 12.-EEBBetako polizi zinema klasikoan gehienbat aipatzen den kartzela Alcatraz izeneko izango da, Sing Sing-ekin batera noski. Uharte batean kokaturik, **gaizkile** gogortuen derrigorrezko

ALDE.- Diferentzia.
SUGEGORRI.- Vibora.
POZOITSU.- Pozoi+tsu. Edentsua. Venenoso. Era berean: osasuntsu, euritsu, indartsu...
MARMUKA.- Medusa.
LAKETU.- Gozatu, atsegina hartu. Divertirse, recrearse.
SUMATU.- Nabaritu, sentitu.
JASAN.- Nozitu. Soportar.
BIZKARROI.- Parásito.
ELTXO.- Mosquito.

BERUN.- Plomo.
ALABAINA.- Hala ere, hala eta guztiz ere. Sin embargo.
ZAKIL.- Pene.
BIDE DA.- Badirudi dela. Parece que es.
ERTAIN.- Ez handia, ez txikia. Medio.
AUZI.- Eztabaida. Pleito, cuestión.
NOLANAHI ERE.- Edonola ere, dena dela. De todas formas.
ANTZINATASUN.- Antigüedad.

pausalekua izan zen hainbat urtetan. Noiz itxi zuten delako presondegi hori?

- A) 1955
- B) 1963
- C) 1980

13.-Frantziako Luis XV.a erregearekin, finantza nazionaleko buru izan zen **gizaseme** baten **deitura**, gerora oso ibilia izan den hitz baten iturria gertatu da. Nor zen hura?

- A) Etienne de Silhouette
- B) Antoine Isaac Caricature
- C) Armand Jacques Désastre

14.-Munduan diren automobilen **banaketa** oso desberdina da. European, Ipar Amerikan, Japonian eta Australian hiru **biztanleko** automobil bat bada ere, zenbait herrialdetan automobil bakarra dago milatik gora biztanlerentzat. Zein dira, proportzioz, automobil gehien duten herrialdeak?

- A) San Marino/Luxenburgo/EEBB
- B) Luxenburgo/San Marino/EEBB
- C) EEBB/Luxenburgo/San Marino

15.-Munduan gehien praktikatzen den kirolean 140 milioitik gorako federazio-lizentzia banatu dira. Zein da kirol hori?

- A) Boleibola
- B) Saski-baloia
- C) Futbola

16.-Musika-partituran noten gainean jartzen den puntuari **stacatto** **deritza**. Zer adierazi nahi du hitz horrek?

- A) Nota bakoitza besteetatik bereiz jo beharra dagoela
- B) Nota luzatu egin behar dela
- C) Musikan ez dago horrelakorik. Stacatto gangster famatu baten deitura zen, Johnny Staccato hain juxtu

17.-Kimikari amerikar baten arabera, sexu-bidez **kutsatzen** den gaixotasun baten aipamena egiten da Biblian. Antzinako israeldarrak jo, eta haietariko 24.000 hil zituen. Moisek geldiarazi zuen **izurritea**. Nola?

- A) Egungo ikertzailea bilatzen ari den botika naturala aplikatuz
- B) Hamar urteko abstinentsia osoa inposatuz
- C) Kutsaturiko guztiak hilaraziz

18.-Erromako enperadoreak, ezaguna denez, hil ondoren jainko **bihurtzen** ziren edo halakotzat **gurtzen** zituzten. Sabeleko min handiek jotako enperadore batek, azkeneko ordua hurbiltzen ari

zitzaiola ikusirik, honako hau esan zuen: *Ai ei, uste dut jainko bihurtzen ari naizela*. Eta hala gertatu zen, handik laster jainko bihurtu baitzen. Nor zen harako hartan umore-**sena** inbidiagarria erakutsi zuen enperadore hura?

- A) Claudio
- B) Neron
- C) Vespasiano

19.-Francisco Fernández de Córdobak 1517. urtean maia indiarrek bizi ziren penintsulan **lehorreraturik** eta bertakoei galdetu ondoren Yukatan deitu zion lurralde hari. Zer esan nahi du juxtu hitz horrek?

- A) Lur Oparoa
- B) Monumentuen Herrialdea
- C) Ez dut ulertzen

20.-Amaiera gisa, **igerkizun** historiko bat. 1685ean Monmouth-eko dukearen erretratua egitea erabaki zuten. Koadroa egiteari ekin aurretik, ordea, haria eta jostorratza erabili behar izan zituzten. Duke jaunaren arropak ez zuen **tarratarik**, ez ezer konpondu beharrik. Zertarako erabili horiek bada?

SOLUZIOAK 46. ORRIALDEAN



EDERTASUN-LEHIAKETA.- Concurso de belleza.

BUREZUR.- Kaskezurra. Calavera.

GAIZKILE.- Gaiztagina. Delincuente.

GIZASEME.- Gizonezkoa. Varón.

DEITURA.- Abizena. Apellido.

BANAKETA.- Bana(tu)+keta. Distribución.

BIZTANLEKO.- Bizilagun bakoitzeko. Por habitante.

DERITZA.- Se le llama.

KUTSATU.- Contagiar.

IZURRITE.- Izurri+te. Epoca de peste. Era berean: jelate, gerrate, lehorre...

BIHURTU.- Bilakatu. Convertir.

GURTU.- Jauretsi. Adorar.

SEN.- Zentzua. Sentido.

LEHORRERATU.- Lehorre+tu. Lehorre joan.

Desembarcar. Aurrakoa: itsasoratu.

IGERKIZUN.- Ikusi-makusia. Adivinanza.

TARRATA.- Zarrasta. Desgarrón.

LODITZEKO BELDURREZ BIZI AL ZARA?

2 Itxurak agintzen du **gizarte** honetan. Eta oraingo **eredua** ez da inolaz ere Rubensen edo Boteroren irudietakoa. **Koipearen** kontrako borroka honetan ere ez da erraza *intsumitu* izaten.

1.- Ba al duzu pisurik komunean?

- a) Ez.
- b) Bai. Baina oso gutxitan pisatzen naiz.
- c) Bai. Ia egunero pisatzen naiz.

2.- Arropa erostera zoazenean...

- a) Estu samarrak erosten ditut. Horrela **mehetzera** behartuta nago.
- b) **Neurrikoak** erosten ditut.
- c) Zabal samarrak erosten ditut. Loditzen banaiz, arazorik ez.

3.- Egiten al duzu kirolik?

- a) Asteburuetan mendira joaten gara, eta gero ederki bazkaldu!
- b) Inoiz ez.
- c) Egunero-egunero egiten dut.

4.- Lagunekin etxean afaldu ondoren...

- a) **Biharamunean** fruta-piska bat eta yogurra jaten ditut bazkaltzeko.
- b) Biharamunean **bapo jarzen** naiz hondarrak jan eta hondarrak jan.
- c) Beti bezala bazkaltzen dut biharamunean.

5.- Jan-neurriari kontu egiten al diozu?

- a) Udaberrian eta udan bai.
- b) Bai. Beti.
- c) Ez.

6.- Lau kilotik gorako haurra jaiotzen denean, «**Hau ume ederra!**» esaten da. Baina zuk zer daukazu gogoan hori esaten duzunean?

- a) Ume pottoloa dela.
- b) Errazago **haziko** dela horrela.
- c) Ederra dela, polita.

7.- Aldizkarietako dietei kasurik egiten al diezu?

- a) Ezta begiratu ere!
- b) Irakurri bai. Baina, besterik ez.
- c) Behin baino gehiagotan erabili ditut mehetzeko. Ez dira, ordea, oso **fidagarriak** izaten.

8.- Supermerkatuetan produktuen kaloriei **erreparatzen** al diezu erosi aurretik?

- a) Ez.
- b) Yogurrei eta inoiz bai.
- c) Begiratu gabe ere badakit zenbait gauza ezin dudala jan.

9.- **Botikara** joan eta pisatzen zarenetan...

- a) **Oinutsik** pisatzen naiz beti.
- b) Ez naiz sekulan botiketan pisatzen, etxean gutxiago pisatzen dut eta.
- c) Dirua horretan bota? Tira, tira...

10.- **Asteburuetan** ateratzen al zara lagunekin afaltzera?

- a) **Askotan**.
- b) Oso gutxitan, baina etxean afaldu ondoren garagardo-mordoska edaten ditugu tabernetan.
- c) Oso gutxitan. Kiloak erraz hartzen dira etxetik kanpora ibilita.



LODITU.- Gizendu. Engordar. Aurkakoa: mehetu, medartu, flakatu.

ITXURA.- Irudia. Imagen, apariencia.

AGINDU.- Mandar.

GIZARTE.- Sociedad.

EREDU.- Modelo.

KOIKE.- Grasa.

MEHETU.- Argaldu, flakatu.

NEURRIKOA EROSI.- Comprar a medida.

BIHARAMUN.- Hurrengo eguna.

Día siguiente.

BAPO JARRI.- Ponerse las botas.

HAU UME EDERRA!- Bai ume ederra! ¡Que crío tan hermoso!

HAZI.- Crecer.

FIDAGARRI.- Fiable.

ERREPARATU.- Fijarse, reparar.

BOTIKA.- Farmacia.

OINUTSIK.- Hankutsik, ortozik.

Descalzo.

ASTEBURU.- Fin de semana.

ASKOTAN.- Sarritan. Aurkakoa: gutxitan.

ZERUA BETI OSKARBI IRUÑEKO PLANETARIUMEAN

3 Argiak itzalitakoan, lagun bati gertatutako pasadizoa etorri zaio gogora: gaztetxoak ez du ondo ikusten, baina nola edo hala moldatzen da **betaurrekorik** gabe. Egun batean, ordea, optikara joatea erabaki du. Launa dioptriako betaurrekoak ipini dizkiote. Ilunabarrean, gora begiratu duenean... *Baina, baina...* Zer da hau! Hainbeste izar zegoenik ere! Antzeko zerbait gertatu zaio Planetariumeko bisitariari. Bederatzi mila izar, bederatzi mila puntu zuri, **gorrisk**a, berdeska... ditu buruaren gainean. Bizitza osoan ez du hainbeste izar batera ikusiko. Musikaren hegoetan ametsen mundura **hurbiltzen** da. Ametsetan galdu gabe, ordea, hor azaltzen den guztia zientzia baita, astronomoek ehundaka urtetan bildutako **jakintza**.

OSKARBI.- Zeru garbia. Cielo raso, sereno.

BETAURREKO.- Antiojua.


GORRISKA.- Rojizo.

HURBILDU.- Hurreratu, inguratu.

Aurkakoa: urrundu, urrutiratu.

JAKINTZA.- Ezagutza, zientzia.

Conocimiento, ciencia.



Argiak piztu direnean, **erne zeuden** guztiak. Gauean, baietz den-denak gora begira jarri zerua lainotuta ez badago behintzat! Eta agian poesia ikutu bat ere azalduko zaie bakardadean.

Astrologiak tira du jendearengan gaur egunean. Jende askok sinisten du Zodiakoko zeinuek norberaren bizitzan duten **eraginean**. Komunikabideek badute horren berri, eta ederki baliatzen dira horretaz. Astronomia, berriz, **gutxietsia** dago gehienetan. Ikertzaileen **eremutzat** hartzen da, jendeak ez omen duelako zientzia horretaz **jakinminik**. Hori ez da egia, ordea. Iruñeko Planetariumek ederki frogatu du **uste hori erdia ustel zela**. Joan den urtean, 105.000 lagunek egin diote bisita izarren proiektzio-**aretoari**. Horietatik 35.000 taldeka joandako ikasleak.

«Izar-eskola» du izenburua eskolei eskaintzen dieten **ikuskitunak**. Eskolek zazpi saio dituzte aukeran, ikasleen adinaren arabera **taxutuak**. Seitik zortzi urtera bitartekoentzat «Ikusi makusi»; zortzitik hamar urtera bitartekoentzat «Izarrak eta beste»; hamabi urte artekoentzat

«Izarretako zirkoa»; hamalau bitartekoentzat «Gora begira»; hamasei bitartekoentzat «Ortziko puntuak»; eta hortik hemezortzira artekoentzat «Joan-etorria unibertsoa».

Ordu beteko saioak dira, hiru zatitan banatuak. Lehen ordu-erdian adin-taldeari dagokion gaia **lantzen** da. Beste hogeit minututan ilunabarrean **ortzia** nola ikusiko duten erakusten zaie. Saio hau urtaroen arabera moldatu behar izaten dute, izarrak ez baitira beti toki berean egoten. Eta, amaitzeko, argia piztuta, galderak egiten dituzte ikasle eta irakasleek.

Izar guztiak ez dira zuriak

Hamarretako txandara gonbidatu gaituzte, euskarazko saiora. Gipuzkoako bi ikastolatako ikasleak dira etortzekoak, 14 urtetik 16 bitartekoak. **Garaiz iristeko** gomendatzen dute paperetan, baina bai guk eta bai Donostiako ikastolakoek kale egin dugu. Ordu-laurden berandu gu, eta ia ordu-erdi berandu haiek. Donostiatik Iruñera hiru ordu-laurdenetan iristen dela zabaldu da. **Behelainoa** dagoenean, ordea, hori ez da horrela. Saioa hasita dago heldu garenean.

Besteei **ez bezala**, sartzen utzi digute. Ilunpetan, eskutik helduta, eraman gaituzte. **Besaulkian** eseri/etzan eta piskanaka hasi gara ilunpetara jartzen. Milaka puntu zuri daude gainean. Aurkezleak, ordea, Antares izar gorria dela dio, argitxo batek lagundu digu ortzian aurkitzen, eta bai!, kolore gorriskak du. Izarrak, beraz, ez dira zuriak denak. Badira gorriskak, urdinskak, horiskak... baina gauean gora begiratzen dugunean, zail da horretaz **konturatzeta**. Hemen, gela honetan, diapositiba, bideo eta zenbait efektu berezien laguntzaz, nabarmenagoa da dena.

Bi ordenagailuk gidatzen dute emanaldia. Batak izarren proiektagailuari bidaltzen dizkio aginduak; besteak bideo osagarri, diapositiba eta soinu-efektuei. Ahotsa, ordea, ez da aurrez grabatutakoa. Nekane Ollo zuzenean mintzatzen zaie ikasleei, **tarteka-marteka** galderak ere eginez. Neutroi-izarrak, zulo



ARGAZKIAK: X. ELGEZABAL

ERNE EGON.- Adi edo argi egon. Estar atento/a.

ERAGIN.- Influencia.

GUTXIETSI.- Gutxi iritzi.

Menospreciar. Aurkakoa: handietsi.

EREMU.- Esparrua, saila. Ambito.

JAKINMIN.- Jakingura. Curiosidad.

USTE HORI ERDIA USTEL IZAN.-

Espero ez zena gertatu.

ARETO.- Salón.

IKUSKITUN.- Espectáculo.

AUKERAN.- A elegir.

TAXUTU.- Eratu, antolatuta.

LANDU.- Jorratu. Trabajar, cultivar.

ORTZI.- Zerua. Firmamento.

GARAIZ IRITSI.- Ordurako heldu.

Llegar a tiempo.

BEHELAINO.- Lambroa. Niebla.

EZ BEZALA.- A diferencia de.

BESULKI.- Butaca.

KONTURATU.- Ohartu, jabetu.

Darse cuenta.

TARTEKA-MARTEKA.- Noizbehinka.

De vez en cuando.

beltzak... astronomiako hamaika gauza erakutsi dizkigu denbora gutxian.

Argia piztu gabe, bigarren atalari ekin dio. Gauean aurkituko ditugun izarrak eta konstelazioak erakutsi ditu ortzian. Mendetan eta mendetan itsasgizonen eta **bidaztien** gidaria izan den **Iparrizarra** aurkitzen ere erakutsi digu. **Iparrorratzik** gabe galtzen diren mendizaleentzako lezio baliagarria oso, baina ikasleentzat bitxikeria bat besterik ez, lagunei pozik erakutsiko dieten bitxikeria.

Argiak piztutakoan hasi da galdera-erantzunen txanda. Ilunpetan hainbeste denboran egonda, ikasleak mutututa daude, ordea. Inork ez du ezer galdetzen. Eta ikastolako irakasleak egin du galdera: «Zergatik Iparrizarra ez da mugitzen beste izar guztiak bezalaxe?». Antzerki-piska bat egin behar izan du Nekanek. Lur planeta jira eta bueltaka nola aritzen den erakutsi du, Iparrizarra beti buru gainean duela gogoratuz. Izan ere, ardatz berean dago izar hori.

Abendutik aurrera helduentzako euskarazko ikuskizuna

Javier Armentia Planetariumeko zuzendariari galdetu diogu ea euskaltegietako ikasleek baduten hona etortzerik. Eta baietz erantzun digu; baina goizetan ezetz, goizetan eskoletako **egitaraua** dagoela martxan. Arratsaldetan joan behar, beraz, **aurretik ordua hartuta**. Dena den, talde txikirik ez dute onartzen. Gutxienez, 50 lagun biltzea eskatzen dute.

Helduek ez dituzte umeen saio berberak ikusten. A Coruña eta Madrilgo planetariumekin elkarlanean, lau hilabetez behin edo ikuskizun berriak sortzen dituzte. Hilabeteotan «El Zodiaco» izeneko ari dira proiektatzen, eta aurretik «Universo Violento» eta «**Esne Bidea**» —euskaratua azkeneko hau— aurkeztu dituzte. Zuzendariak agindu digu hurrengo ikuskizunak ere —«La familia del Sol»— euskarazko bertsioa izango duela. Abendurako bukatua izatea espero dute. Euskaltegiek izango omen duzue ikuskizun horren berri.

Helduen ikuskizunek badute bestelako bereizgarriak ere. Aurrez grabatutako saioak izaten dira, aretoan ez baitago aurkezlerik. Galderak egiteko aukerarik ez da, hortaz.


Tornamira aretoa

Tornamira proiektzio-aretoa astronomiaren jakintzak erakusteko sortu bazen ere, badago bestela ere erabiltzerik. **Sapaiko** 20 metro zabaleko kupula hori eskenatoki aparta da zenbait arte-emankizunetarako. Bertan bideo-irudiak proiektatuz kontzertuak eman izan dira. Iruñeko katedraleko **abesbatzak** ere saio bat egin du milaka izarren azpian Santiobideko abestiak eta ilunpean kantatuz. Luis Delgado musikajolea ere izan da bertan arabiarren eta sefarditen musika jotzen. Agian, **olerkiei** iritsiko zaie txanda beste noizbait. Zoritxarrez, 220 lagunentzako tokia besterik ez da aretoan.

IRUÑEKO PLANETARIUMa
Tel: 948-26 26 28

Salneurriak:

«Izar eskola» egitarauan: 200 pta.
Bestelakoetan: 450 pta. (taldeka 300 pta. pertsonako)



BIDAZTI.- Bidaiaria. Viajero/a.
IPARRIZAR.- Estrella Polar.
IPARRORRATZ.- Brújula.

EGITARAU.- Programa.
AURRETIK ORDUA HARTUTA.- Con cita previa.
ESNE BIDE.- Vía Láctea.

SAPAI.- Bóveda.
ABESBATZA.- Coro musical.
OLERKI.- Poesía.

SILVIA ETA AITONA

3 Silvia berandu zetorren. Aitona **luze-iritzirik** zegoen, minutuero gelako erloju handiari begiratzuz, **hornigai** berriak eskuratzeko **amorratzen**, San Jose bezperan. «*Baliteke hain egun seinalatua bezperan eskolan festaren bat antolatzea edo biharko **elizkizunerako** entsaiatzen aritzea*» pasatzen zen aitona burutik, pilak erdi gastaturik dituen magnetofono mintzo **geldiaren** antzera.

Bi kolpe, ohi baino **bipilagoak**, entzun zituen aitona gelako atean, Silviaren ez zirenak. Botila hutsari ohe azpira eragin ondoren:

-Zein da? -egin zuen **deiadar** aitona.

-Ireki! -seko bat entzun zen atearen bestaldetik.

Egun on eta bestelako **diosalarik** gabe sartu zen ateko mandataria, muturrez bera geratu zen ohe azpiko ardo-botilak bidean utzi zituen **zipriztinei** begira eta bera sartzearekin batera ihesi abiatu zen katuari **xapka**.

-Eta hori? -galde egin zion Matildek aitari.

-Atera egingo zitzaidan -erantzun zion aitak, **zunda** aipatu gabe.

Esfortzuekin-edo, zunda bere lekutik atera eta pixa-erreak dibujatu zen koartxoan zehar, Leizarango autobia **bailitzan**, pijama-**barrenetik** indarrean aterata.

-Hau bada gauza! **Intxixu** zaharra halakoa! -murmuriatu zuen alabak **ahopeka**, aitona ez ulertzeko moduan.

Ulertu ez arren, sarri okerrago dena, min eman zion horrek, nonbait, aitona, eta:

-Zakurraren pare tratatzen nauzu -eraso zion, begiak **igurtziz**.

Hitzik erantzun gabe, begira-begira geratu zitzaion Matilde aitona, eta hitzik esan gabe ofenditu zuen gero Matildek aita, begirada mespretxuzko, botila jasotzeko era mehatxatzaile, fregona astintzeko modu zakar eta despedidako ate-zartada **zalapartatsuekin**.

Gona zuria urdin zekarren Silviak eskolatik etxera; urdin morea. Periodiko-paperean bildurik jarri zion

dendako Martzelinak botila-ardoa eta bularraren kontra estutzen zuen, aitona ematerako karinoz kutsatu nahiko balu bezala, Hilariok, ijitokumeetan gaiztoenak, tiragomarekin jo eta puskatu zionean.

Aitona-biloben konplotak eta handik zetozkion lan eta hondamendien erruz, **hortzak kraskaka** zeuzkan Matildek.

-Gaur ez zara aterako gelatik -**sutu** zen ama, Silviaren kontra.



LUZE-IRITZI. - Denbora luze iruditu. Parecerle largo el tiempo.

HORNIGAI. - Abastecimiento.

AMORRATU. - Rabiár.

ELIZKIZUN. - Acto religioso.

GELDI. - Mantsoa, motela. Lento.

BIPIL. - Bortitza, gogorra. Fuerte, enérgico.

DEIADAR. - Oihua. Grito.

DIOSALA. - Agurra. Salutación.

ZIPRIZTIN. - Zirta. Salpicadura.

ZUNDA. - Kiratsa, usain txarra, Hedor.

BAILITZAN. - Balitz bezala. Como si fuera.

BARREN. - Beheko aldea. Parte inferior.

INTXISU. - Sorgina, aztia. Brujo, hechicero.

AHOPEKA. - Ahopean. Entre dientes.

IGURTZI. - Frotar, restregar.

ZALAPARTATSU. - Zalaparta+tsu. Zaratatsua. Ruidoso.

HORTZAK KRASKAKA. - Crujiendo los dientes.

SUTU. - Sumindu, haserretu. Enfurecerse.

-Hori ez da egia! -harrotu zitzaion alaba.

Baietz eta ezezka, ezetz eta baiezka, eta nola batak hala besteak aitona testigutzat jarritz, nork bere alde **argudioak** pilatu eta pilatu, ez ziren isildu **puska batean**.

Alabari tokatu zitzaion galtzea eta obeditzea. Kolpeko isiltasunak lagundu zion Silviari gelarako bide laburrean; atea **krisketaz** itxi eta ohe gainera bota zuen bere burua, **zizpuruka**, eta haserre.

Silviaren gela aitonarenaren gain-gainean zegoen: aitonaren **zorua** Silviaren tetxua. Hala ere,

distantziarik motxena da luzeena komunikaziorik ez dagoenean.

Silviak, armairu gainetik eskiak hartu eta «tan, tan...tan...tan» tetxua joz ebaki zuen isiltasuna; eta aitonak, bastoiari esker, erritmo berean erantzun zion. **Irribarrea** imajinatu zuten elkarren aurpegian, irribarre berezia; ezinaren aurrean egiten den horietakoa.

Aitonari gorputzean, «**barauak**» eraginda-edo, dardarizo-apur bat nabari zitzaion.

Eta aldian-aldian, bizi-seinale eta adiskidetasun-ikur, joaldi bera errepikatzen zuten. Azkenerako txalaparta-saioa zirudien, batak besteari bere desioak eta sentimenduak azalduz.

Bastoiaren puntan soka luzatu zion aitonak Silviari leiho parera. Honek ez zion «*ez daukat, aitona; ijitokumeak hautsi dit*» jartzen zuen paper-punta baizik itzuli ahal izan. Antiojuak erantzten ari zen aitona Matilde sartu zenean.

-Basta! -ziprztindu zitzaion alaba, **arestian** entzun zituen bastoi-kolpeak **gaitzetsiz**.

Aitona leihotik begira, hutsari begira, geratu zen.

-Mugitzeko bazara, mugi zaitez! -**erretxindu** zen, berriro ere, Matilde.

Afari-legea bukatu eta ohean sar zezala eskatu zion alabari.

Silviak ez zuen afaldu. Ohe barruan zegoen amak asmo horrekin deitu nahi izan zionerako.

Biharamunean, eskolarik ez zuenez, berandu jaiki zen. Ondo bidez, aitonak bi ordu eman behar zituen **elbarri**-silan. Txalaparta jotzen hasi zen Silvia. Erantzunik ez zuela jasotzen ikusita, bere **indar oroz** kolpatu zuen tetxua. Aitonaren **zantzurik** ez. Amak gelako atea ireki zionean, haren aurpegian irakurri zuen berria. Joan eta musu eman zion aitonari. Katuak igurtzi zizkion zangoak. Itzuli zenean, tetxuan zuloa eta lurrean **igeltso**-puska aurkitu zituen, San Jose bezperan.

Rufino Iraola Garmendia

ARGUDIO.- Arrazoia. Argumentación.
PUSKA BATEAN.- Durante un rato.
KRISKET.- Pestillo, pasador.
ZIZPURUKA.- Zinkurika, zotinka. Sollozando.
ZORU.- Piso, pavimento.
IRRIBARRE.- Barremurria. Sonrisa.
BARAU.- Ayuno.

ARESTIAN.- Lehenxeago. Un poco antes.
GAITZETSI.- Ezetsi. Reprobar.
ERRETXINDU.- Sutan jarri, sumindu. Encolerizar.
AFARI-LEGEA.- Afarri arrunta.
BIHARAMUN.- Hurrengo eguna. Día siguiente.
ELBARRI.- Paralítico.
INDAR OROZ.- Indar guztiaz. Con todas sus fuerzas.
ZANTZU.- Aztarrena, arrastoa. Indicio.
IGELTZO.- Yeso.

HITZ GEZIDUNAK

	*Izena	↓	Etzanik zegoen	↓	Bertutez betea	↓	Zur mota	↓
	Faboreak		Pipi		Musika nota		Gai zati txiki	
	→		S		↓		↓	
	Hutsak adierazi	→	I					
	Eite	→	T		Osaba beltza	→		
					Katez lotua			
Sentimena	↓	Ez hotz	↓	Uso txiki	→			
1/3		*Deitura		Emakumeei deitzeko				
→		↓		↓	Noranzkoa	OTAN	→	
					Asko hitz egiten ez duena			Muin, mami
Nerau nihaia	→			↓	↓	Infusio mota	→	Kontso-nantea
Jainkogabe						Fosforoa		Ifernukoa
→				Famatu	→	↓		↓
				Bitamina mota				
Lau	→		Gaixo	→	↓	Landare gogaikarri mota	→	
Ez arra			Oroimen			Hauturak		
→			↓	Alez betea	→	↓		
				Bururatu				Karakola-ren laguna
Erratzare-kin garbitua	→			↓				Bigarrena
Zintzo								Arin, laster
→		Intsektu mota	→		Bizkaiko herria	→	Azkena eta lehena	→
		Batekoa			Funtsezko isurkari		Nor-nori-nork adizkia	↓
Aberats	→	↓			↓		Errep., ikaraz	→
Zu eta ni							Galioa	↓
→		500	→	Bultza-tzaile	→	↓		
		Italiako autoetan		Tesla				
Labatiba	→	↓	↓		Sagu-harrapa-tzailea	→		

POEMA PRESOA

Zatika emandako erantzunak osatu ahala, eraman itzazu letra zenbakidunak beheko taulara –adibidean bezalaxe– eta Mikel Zaratek beste poeta bati buruz egindako olerkiaren zenbait lerro aurkituko dituzu.

Lanabes zorrotz batez egindako zauria

Gozatu, ematu

Euskarri zuta

Tximeleta

Basamortua

Gizakiaren odolaz elikatzen den bizkarroia

Gastatu (erabiliaren erabiliaz)

Ondua, umotua

Hankoker

Jendaurreko ekitaldietarako sala

Mugitzen ez den itsas animalia

Tximino handia

Babesa

Zer kopuru?

Kolorea

Lurra lantzeko lanabesa

Distira, dirdira

Gerra gizon, soldadu

E		A	K		A
E		T			U
	U	T			E
	N	G	U		A
E	R			U	A
Z			R		
H	I			T	U
H	E	L	D	U	A
H		R	R	E	
		E		O	A
B		L	A		I
G		R	I		A
G		R			A
Z		N			
B	E	R			A
G	O		D	E	
			D	A	I
G			A	R	

1	2	3	4	5	6	7
---	---	---	---	---	---	---

17	18	19	20	21	22	23
----	----	----	----	----	----	----

30	31	32	33	34
----	----	----	----	----

JEROGLIFIKOA



Nola gertatu zen istripua?

LETRA-ZOPA

Aurki itzazu irudi hauei dagozkien hitzak. Ondo gogoan hartu norabide guztietan aurki daitezkeela.

B	A	T	Z	T	N	U	H	A
H	I	O	A	U	P	P	N	K
I	R	G	L	S	M	I	O	U
M	A	K	I	L	A	T	S	R
U	T	O	K	T	J	X	T	U
Z	N	E	Z	D	A	E	K	A
L	I	A	E	P	E	R	O	X
E	G	U	Z	K	I	M	R	E
H	A	S	T	Z	O	X	T	A



ALEX DE LA IGLESIA: «ZINEMAREN MUNDUA KRUDELA DA OSO»

3 Laister, abiatuko da Arizona aldera Bilbon jaio, Deustun ikasi eta Venezian txalotua izan zen Alex de la Iglesia autore bihurri, *destroyer*, abil eta «kategorixakoa». Sekulakoa da han zain daukan **erronka**: David Lynch-en «Corazón salvaje» marabilosoaren jarraipentzat har dezakegun «Perdita Durango» filmatzea. Haruntzarakoan berarekin izan genuen **hitzaspertu** bat, Zinema, Deabru eta Bizitza **hizpide** zirela.

Galdera: «El día de la Bestia» zure azken filmean, Madrilén, aurtengo Gabonetan jaioko den Deabruari **eraso egiten** dion apaiz eta teologo euskaldun **xume**, **tolesgabea** hartzen duzu protagonista eta heroe. Etsaiak, ordea, askoz handiagoak dira: lurpeko mila sekretu gordetzen dituen Madril **garratza**, bizidunen eta hildakoen buru, arima eta bihotzak kontrolatzen dituzten telebista-kateak; lurra heredatuko ez duten **etorkin**, behartsu eta aterperik gabekoak **akatzten** dituzten hiltzaileak eta Deabrua bera. Luzbel bera. Ez da da handiegia Anjel Berriatua gizarajoaren **erantzukizuna**?

Erantzuna: Baliteke, bai, baina nik horrelako pertsonaiak ditut gogoko, lagun, atsegin, kide. Bestaldetik, **orbainik**, eskarmenturik ez zuen gizakia behar nuen. Garbia izan behar zuen, *puroa*. Apaiz bizkaitar horrek ez du Gaitza ezagutzen. Ez du ikusi. Ez du dastatu. Eta ez bakarrik Gaitza. Are gehiago, telebista zer den ere ez daki. Horrexegatik, akaso, Deabrua agertzen denean **irmo** begiratzeko kapaz, gai izango da.

Galdera: Deabrua aipatu duzu. Filmean ohikoa zaigun irudiaz azaltzen duzu, betiko Aker Beltzaz, baina Akerra baino askoz arriskutsuagoak diren **gaizkinak** badira. Filmean bezala, lurrean ere.



Alex de la Iglesia.

ERRONKA.- Desafío, reto.
HITZASPERTU.- Solasaldia, berriketa. Charla.
HIZPIDE.- Hizketagaia. Materia de conversación.
ERASO EGIN.- Oldartu, ekin. Atacar.
XUME.- Umila, apala. Sencillo.
TOLESGABE.- Xaloa. maliziarik gabea.


GARRATZ.- Mingotsa, mikatza. Amargo.
ETORKIN.- Advenedizo.
AKATU.- Akabatu. Hil. Matar.
ERANTZUKIZUN.- Ardura. Responsabilidad.
ORBAIN.- Mancha, cicatriz.
IRMO.- Tinko, sendo. Firme.
AKER.- Macho cabrío, cabrón.
GAIZKIN.- Gaizkilea. Delincuente, malhechor.

Erantzuna: Bai horixe. «El Día de la Bestia» azaltzen den **piztia** hori zine klasikoari zor diodan errespetuaren froga da, baina nik badakit Deabru berdaderoa **gure baitan** dagoela. Gure **erraietan**. Klean, **eskeko** baten ondoan pasatzean begiak apartatzen ditugularik, Gaitza ikusten dut nik. Jende askoren begiradan sumatzen dut. Baina **zin dagizut** ez dudala ikusten justu, prexixo, «ofizialki» gaiztoak diren horiengan. Ez **heavyengan**, ez gizarteak baztertuengana. Askoz errazago nabaritzen dut aberatsa, guapoa eta ondo orraztutako nazikume horiengan.

Galdera: Akort, konforme; baina ba al dakizu zinemaren lege ezkutu bat hautsi duzula? Zuk hain maite duzun «La noche del demonio»ren egileak, Jacques Tournerek esana: madarikatua izan dadila Deabrua pantailan erakusten zuen hori...

Erantzuna: Bai, halaxe mintzo zen nahiz eta filme hartan berak erakusten zuen. Kontua zera da, nik, bereziki, biziki, Gaitzaren **agerpena** azaldu nahi nuela eta protagonistak ikusi egin behar zuela. Ikusi eta gero, ikusi zuelako, kontra egiteko kapaz izango zen eta.

Galdera: «La noche del demonio», «El Exorcista», Polanskiren «El Quimérico inquilino», Scorseseren «Uno de los nuestros» dira zuk maite dituzun



PIZTIA.- Animalia basatia. Bestia.
GURE BAITAN.- Gure barruan. Dentro de nosotros.
ERRAIK.- Visceras.
ESKEKO.- Eskalea. Mendigo.
ZIN DAGIZUT.- Zin egiten dizut. Te juro.
AGERPEN.- Ager(tu)+pen. Azalpena. Aparición.



Angel Berriatua apaizaren oinazpi urratuak.

filmeak. Gaitz-mota asko agertzen dira hor...

Erantzuna: Bai. Halare, nik betiko **Galtzagorriarekiko** sinpatia badut. Sinpatia egiazkoa.

Galdera: Horrexegatik bukatzen duzu filma Madrilen, Aingeru Eroria omentzen duen estatuen pean...

Erantzuna: Baietz, ba. Galtzaile-tropa eder eta kurioa osatzen dute apaizak, exorzista gezurteroak eta brontzezko deabru horrek.

Galdera: Mintzo gaitzen zinemaz. **Sailka ezin**ak dira zure gustuak...

Erantzuna: Ba bai, Danny De Vitok **sinatu** zuen «Tira a mamá del tren» gustukoa dut. Baita Berlangaren «Plácido» ere. Billy Wilderren hainbat eta Buñuelen asko zer esanik ez. **Ekialdetik** datozen Kitano eta John Woo atsegin baino atseginago ditut, baina «Darkman» eta «Posesión infernal» burutu zituen Sam Raimi aipatu beharko dut «La guerra de las galaxias»en trilogiaren ondoan eta Russ

Meyer ero eta erotikoaren **aldamenean**.

Galdera: Nor duzu buruan zeure filmeak egiterakoan, aipatutako horiek, zu zeu, ikaslea...?

Erantzuna: Ikusle **hipotetiko** batentzat egiten ditut nik pelikulak. Ikusle hipotetiko hori ni nauzu. Nolako filma gustatuko litzaidakeen pentsatzen dut eta **ildo** horretatik joaten naiz. Baina badakizu zer? Zaila, zaila oso zuk zeuk sortua den horretatik **aldentzea**, seguritateko distantzia hori ezartzea. Grazia ez dizu egiten, ez zaitu beldurtzen zuk eginga delako. Eta gero...

Galdera: Eta gero zer?


Erantzuna: Ba, justu, errai horiek ezagutu ez dituen jendeak **zitzu batean**, bi ordutan **asko jota**, ikusi, **kontsumitu** egiten du produktua. Ez du bi urteko lan horren berririk, lagun askoren esfortzuaz ezer ez daki. Horixe da Zinemaren krudeltasuna, zeluloidezko deabruaren azken algara.

Begoña del Teso

GALTZAGORRI.- Deabrua (euskal mitologian)
SAILKA EZINA.- Inclasificable.
SINATU.- Izenpetu. Firmar.
EKIALDE.- Eguzkia, sortalde, Oriente.

ALDAMEN.- Albo. Lado, vera.
ILDO.- Arrastoa, haria.
ALDENDU.- Urrundu. Aurkakoa: hurbildu.
ZITZU BATEAN.- Jesus batean. En un santiamén.
ASKO JOTA.- Como mucho.

IZARRAK BILATZEKO MAKINA



GOIZ GUZTIAN KAMIOI ALU HAREN ZAIN EGON NINTZEN. 800 TORLOJU NITZEN MONSIEUR DUVALIERREK AGINDUTA ZUBIRA ERAMAN BEHARREKOAK. EZ ZEN ZORAKERIA MAKALA ZAN TORLOJU HAIEK GUZTIAK MALETATAN SARTZEA. BESOAK AKITUTA NEUZKAN ETA KONPAINIAREN DIRUA PATRIKAN. HORRELAXE ERAMAN NINDUTEN NIRE HANKA NEKATUEK GARAJE HARTARA ETA TRASTE ZAHAR HURA ALOKATZERA.



AIZU, ZER DUZU TRESNA HORI?

HAU? ZERA... IZARRAK BILATZEKO MAKINA.



OSO MAKINA SINPLEA DA... BAINA BALJOITSUA IZARRAK BILATU NAHI DITUENARENTZAT.



IKUSTEN? HEMENGO OHOLTZO HONEK ERAKUSTEN DU IPARRA ETA HEGOA NON DAUDEN. OSO MANEIA ERRAZA DA.



DOLAR-PARE BAT ETA AUTOAREKIN BATERA ERAMAN DEZAKEZU.

O. K.



DUVALIER INGENIARIA ZEN, HERRIALDE HAU ZEHARKATZEN DUEN TRENAREN ZUBI GUZTIEN ARDURADUN. BAZIREN BEDERATZI HILABETE ZUBI MADARIKATU HURA ERAIKITZEN ARI GINELA. BEHARBADA ETXEAN USO BAT IZANGO ZEN, BAINA KANPOTAR GUZTIEK TRATATZEN GAITUZTEN MESPRETXU BERBERAZ TRATATZEN GINTUEN GU. NIK BANEKIEN NOLAKO ERASOA EGINGO ZIDAN TORLOJUEKATIK SOBRATUTAKO DIRUAREKIN AUTOMOBIL ZAHAR HURA HARTU NUELA JAKITEAN.



Mikel Valverde

KAMIOI ALU.- Puto camión.
TORLOJU.- Tornillo.
AKITU.- Unatu. Fatigarse.
PATRIKA.- Poltsikoa, sakela. Bolsillo.
ALOKATU.- Akuratu, errentan hartu. Alquiler.
OHOLTZO.- Ohol+txo. Ohol txikia. Tablilla. Era berean: haurtxo, ontzitxo, etxetxo...

MANEIA ERRAZA.- Fácil de manejar.
ERAIKI.- Jaso. Construir.
ERASO.- Ataque.



Mikel Valverde

TO! - ¡Mira! ¡Vaya! (Haridura adierazteko).
BETI BAT BERA.- Siempre el mismo.
TXERA.- Onginahia. Cariño.
DOANEKO.- Dohainekoa, debaldekoa.
JARRERA.- Portaera. Actitud.
KEZKATU.- Larritu, estutu. Apurarse.



HALAXE ZEN. NIK TXIKITU BEHARREKO ZUBIA 9 HILABETEZ LANEAN MADARIKATZEN ARITUTAKO HURA BERA ZEN. LANAK ERDI GELDIRIK ZEUDEN NIK 800 TORLOJU PUTA HAIK NOIZ ERAMANGO ZAIN.

NIK HITZA EMANA BAINION DUVALIER JAUNARI KOSTA AHALA KOSTA ERAMANGO NITUELA.

NOLANAHI ERE, DUVALIER JAUNARENGANA JOATEKO ORDUA ATZERATZEARREN EDO HALABEHARREZ, ZERRATU NUEN TRATUA THOMSONEKIN.



ZER GERTATZEN DA, BELDURRA ALA?
TIRA, GIZONA!



EZ, EZ, MISTER THOMSON. BAINA ERABAKIA EZ DA ERRAZA.




SALOMONENA ERE EZ HUEN ERRAZA IZAN, ALAJAINKOA. HIK ERE HARTZAK, HARK BEZALA.



SALOMON ISRAELGO ERREGE ZAHAR BAT HUEN. ORDUAN ERREGEAK IZATEN HITUEN EPAILE ERE. HORREGATIK SALOMONEK...



BI AMA HAIEN ETA ERDI BI EGIN NAHI ZUEN UMEAREN ISTORIA KON-TATU ZIDAN. BAINA ERRAZ IGERRI NION AURPEGIAN BESTE KANPOTAR GUZTIEN MESPRETXU BERBERA ZUELA ZUBIKO LANGILEENTZAT. INGURUKO BUNGALOW BATEAN BIZI ZEN MISTER THOMSON, GURE ZUBITIK HIRUREN BAT KILOMETRO-TARA. HANTXE EGIN GENUEN GEURE KOARTELA ETA HANTXE IKASI NUEN DINAMITA ERABILTZEN.



TXIKITU. - Porrokatu, txiki-txiki egin. Destruir.

HITZA EMANA BAINION. - Le había prometido

KOSTA AHALA KOSTA. - Costase lo que costase.

ZERRATU. - Itxi. Cerrar.

HARTZAK. - Har ezazu. Toma (Hitanoan)

ERDI BI EGIN. - Erdibitu. Partir en dos.

IGERRI. - Antzeman. Calar, darse cuenta.



Mikel VALVERDE


SASARTE.- Larrartea. Zarzal.
 AKABATU.- Hil. Matar.
 AUSKALO.- Batek daki. Vête a saber.
 EKIALDE.- Sortaldea, eguzkialdea. Oriente.
 ALDAMEN.- Alboa. Vera, lado.

JEROGLIFIKOA

1

Nola gertatu zen istripua?

Bat batean= **Bat-batean**



POEMA PRESOA

(Mikel Lasa)

Bizitza bi memoria
galduen arteko
leize bat dela dirudi

TESTA

1. a) 1 b) 2 c) 3
2. a) 3 b) 2 c) 1
3. a) 2 b) 3 c) 1
4. a) 3 b) 1 c) 2
5. a) 2 b) 3 c) 1
6. a) 3 b) 2 c) 1
7. a) 1 b) 2 c) 3
8. a) 1 b) 2 c) 3
9. a) 2 b) 3 c) 1
10. a) 1 b) 1 c) 3

16 PUNTUTIK BEHERA

Ez zaude batere **kezkatuta** zeure pisuarekin. Gorputzak **berezkoa** du loditzeko edo argaltzeko **joera**. Zure ustez, gorputzari den bezalakoa izaten utzi behar zaio. **Katearik** ez.

16 PUNTUTIK 25 PUNTURA

Beldurrik ez, baina errespetu-piskat bai. Kilo-pare bat gora behera ez zara asko kezkatzen. Baina hortik aurrerakoak...! Dena den, dieta **zorrotzik** egiteko asmorik ez duzu.

25 PUNTUTIK AURRERA

Kalkulagailua buruan daramazu beti; horrenbeste kaloria, horrenbeste koipe... Jatea behar fisiologiko huts **bihurtu** duzu. Zu zeu **galtzaile**!


EZETZ ASMATU:

1.B/2.C/3.A/4.B/5.A/6.B/7.A/8.C Sinfonikoa ez da orkestra mota bat, *musika-zale* esan nahi duen adjetibo soila baizik/9.C/10.B/11.C/12.B/13.A/14.A/15.A/16.A/17.C/18.C19.C Hain zuzen ere haren galderei horrela erantzuten zieten indiarrek/20. Monmouth-ko dukea James II.a erregearen aurka altxatu zen eta, garaitua izanik, lepoa mozttera kondenatu zuten. Lepogabetu ondoren, erretratua egitea erabaki zuten eta burua gorputzari josi behar izan zioten...

HITZ GEZIDUNAK



LETRA-ZOPA



SOLUZIOAK: Ahuntz, ezkila, pitxer, gaztaina, gitarra, eper, eguzki, pisu, zirku, agintari, makila.

KEZKATU.- Arduratu, estutu.
Preocuparse.
BEREKO.- Natural, propio.
JOERA.- Tendencia.
KATEA.- Cadena.

ZORROTZ.- Severo, estricto.
BIHURTU.- Bilakatu. Convertir.
GALTZAILE.- Perdedor/a.
 Aurkakoa: garailea,
 irabazlea.

ARIES

Martxoaren 21etik Apirilaren 20ra
Ezin zara telefono delaren zain bizi. Zure maitearen **menpeko** bihurtu zara, eta oraindik ez dakizu hark maite ote zaituen ere. Ahaztu telefonoa. Saiatu jende berria ezagutzen. Maite bazaitu, aurkituko zaitu.

TAURUS

Apirilaren 21etik Maiatzaren 20ra
Autoa **hondatuko** zaizu. Arazo larria da, baina bizimodu berri bati **ekiteko** aukera dakar. Oinez ibiltzea osasungarria da; autobus eta trenetan jende atsegin ugari dabil. Eta haserreak ez du ezertxo ere konpontzen.

GEMINI

Maiatzaren 21etik Ekainaren 21era
Gehiegi hitz egiten duzu, **eztarriaren** kaltetan. **Bizkorregi** hitz egiten duzu, esandakoa aurrez pentsatu gabe. Oinazeak eta hankasartzeak baztertzeko **egokiera**. Oporrak behar dituzu: zoaz kartujoen komentura.

CANCER

Ekainaren 22tik Uztailaren 22ra
Ez egin kasurik zure horoskopoaren izenari: **oinaze** horiek ez dira **minbiziaren** seinale. **Ajea** da: adina, alegia, eta bizimodu traketsa. Atsedena behar duzu. Geratu etxean, eta, bide batez, egin euskaltegiko ariketak.

LEO

Uztailaren 23tik Abuztuaren 23ra
Zabalago **jokatzen** ikasi behar duzu. Sexista, arrazista, eta klasista zarela uste dute zure ingurukoek. Ez daude arrazoi faltan. Hori ere ikasi beharko duzu bada! Zoaz barnetegi berezi batera.

VIRGO

Abuztuaren 24tik Irailaren 23ra
Beti isilik egoteak ez zaitu interesgarriagoa egiten. Astearteak dituzu egunik aproposenak. Ausartago jokatzeko ere baliatu egun horietaz. Mintza praktika egin beharra daukazu, euskaraz, noski, baina baita ere erdaraz. **Ez etsi**.

LIBRA

Irailaren 24tik Urriaren 23ra
Euskaldunak ez gara besteak baino **zakarragoak**. Euskara ikastea ongi dago, baina ez duzu zakarrago izaten ikasi beharrik. Garai **nahasiak** datozkizu. Zaindu **janzkera**. Neurritz edan. Gufxi jan. Irakurtzeko, poesia.

SCORPIO

Urriaren 24tik Azaroaren 22ra
Amnesi arazoak. Ahaztu egin al zara zure gurasoez? **Dantzatu telefonoa**. Edota **gutunak** idatzi, lore-sortak bidali, zeure berri eman. **Maitale** bat ere izan zenuen, inoiz. Zure zain dago, ez luzarorako.

SAGITARIUS

Azaroaren 23tik Abenduaren 21era
Hilaren hamabosta egun biribila izango duzu. Beste guztiak, negargarriak. 3a da zure zenbakia. Kolorea, urdina. Jakia, **indabak**. Edaria, **metal-ura**. Musika, Luis Cobos. Sentitzen dut.

CAPRICORN

Abenduaren 22tik Urtarrilaren 20ra
Argitasun berezia izango duzu bolada honetan. Horoskopoak inork baino hobeto egiteko gai izango zara. Zorionak. Bidali zeure telefono-zenbakia erredakziara. Hainbat kontsulta egin nahi dizut. Milesker.

AQUARIUS

Urtarrilaren 21etik Otsailaren 19ra
Goizetan ezin izango zara **iratzarri**. Alferrik zabilta. Aldatu euskaltegiko eta lantokiko ordutegiak. Izarrek jaigiroa eskatzen dizute. Jateko, makailua. Entzuteko, makailua. Dantzatzeko, makailua. **On egin**.

PISCIS

Otsailaren 20tik Martxoaren 20ra
Munduak ez zaitu gorroto. Gehiegi larritzen zara: bizpahiru egun txar ez dira **zeure buruaz beste egiteko** nahikoa arrazoi. Tila edan. Barazkiak jan. Vivaldi entzun. Eta, baretzen ez bazara, zoaz psikiatragana.

MENPEKO.- Menekoa, agindupekkoa. Sometido.
OINAZE.- Mina. Dolor.
MINBIZI.- Cáncer.
AJE.- Achaque.
BIDE BATEZ.- Bidenabar. De paso.
ZAKAR.- Gozakaitza, jenio txarrekoa. Aspero, desabrido.
NAHASI.- Korapilotsua.
EMBROLLADO.
JANZKERA.- Forma de vestirse.

HONDATU.- Matxuratu. Estropear.
EKIN.- Heldu. Empezar.
JOKATU.- Ibili, ari izan. Comportarse.
DANTZATU TELEFONOA.- Astindu telefonoa. Utiliza sin miedo el teléfono.
GUTUN.- Eskutitza. Carta.
MAITALE.- Amoretea. Amante.
IRATZARRI.- Esnatu. Despertar.
ON EGIN.- Que aproveche.

EZTARRI.- Zintzurra. Garganta.
BIZKOR.- Azkar, arin. Rápidamente.
EGOKIERA.- Parada. aukera. Ocasión.
EZ ETSI.- Ez amorerik eman. No cejes.
INDABA.- Babarruna. Alubia.
METAL-URA.- Agua mineral.
ZEURE BURUAZ BESTE EGIN.- Zeure burua hil. Suicidarte.

HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Erakunde Autonomiaduna

